



Bizitzaren jugada

Joseba Ezkurdia Binakako hirugarren txapela lortzetik aita despeditzera pasa zen ordu gutxitan / 18-19



Hizkuntzaren "inkorrektzio" deia / 22-23

"Hizkuntza praktikak euskaraz garatzeko ingurune lagungarriak sortzen Euskaraldian" / 2-3

Sunsundeguiaren likidazioa apirilaren 14an hasiko da. 30ean kaleratuko lituzkete langileak / 5

Elkartasun azokak hartuko dituzte Etxarrik, larunbatean, eta Altsasuk, igandean / 6

Etxarriko Udalak bizikleta sarea sortzeko herritarren ekarpenak jaso nahi ditu / 11

Giro ederra Olaztiko Rallysprintean. Javier Goikoetxea eta Aritz Elgarresta, lehen sakandarrak / 17

SINADURAK



ERKUDEN
ALDASORO
ERREA / 4



SAKANA
TRENAREN
ALDE / 4



JOSE LUIS
ERDOZIA
MAULEON / 10



URDIAINGO
LIBURUTEGIA / 22

A.A.I. SAKANA

Udaberriko aurreneko Euskaraldirako hilabete eta erdi besterik ez da falta. *Elkar mugituz eginen dugu* leloa hartuta, euskaldunak eta hizkuntza ulertzen dutenak euskararen erabilera sustatzeko mugimenduaren parte izatera gonbidapena jaso dugu.

Laugarren edizioa. Euskaraldia errotua dago?

Baietz esatera ausartuko naiz! Uste dut Euskaraldiak dagoeneko baduela izen bat, ambizioa duen ekimena da. Aldi berean, noski, aldaketa eta sortze prozesuan dago etengabe.

Jendarteak barneratu du zer proposatzen duen Euskaraldiak?

Euskaraldiak proposatzen duena geroz eta ezagunagoa da jendartean, ikerketek ere hala diote, baina barneratzea badakigu ez dela erabatekoa. Hau da, jende askok jakin badaki Euskaraldiaren helburua hizkuntza ohiturak aldatzea dela, baina horrek ez du esan nahi denek benetan praktikan paratzen dutenik edo ekimenaren funtsa sakonki barneratu dutenik. Ezagutza handitu da bai, baina

"Euskaraz bizitzeko eredu berriak ere agertzen dira"

EKHINE TXOKARRO EZKURRA NAFARROAKO EUSKARALDIKO SUSTATZAILEA

Entitateena lehenik, eta pertsonena ondoren, Euskaraldian izena emateko epea zabalik dago. Ariketa masiboa maiatzaren 15etik 25era izanen da

praktika sendotzea da benetan aurtengo edizioko erronka nagusienetako bat!

Eta zer da zehazki proposatzen duena?

Euskaraldiak, modu indibidual zein kolektiboan, hizkuntza ohituren berrikuspina egin eta horiek euskarara hurbiltzeko proposamena egiten du. Arike-

ta praktikoa da, euskara, gehiago, gehiagotan eta jende gehiagorekin egiteko elkarrekin egiten dugun ariketa sozial erraldoia da. Hizkuntza prakti-

ka horiek aldatzen hasteko, hemen bi proposamen.

Aurrena. Lehen hitza euskaraz egitea. Ezagutzen ez duzun horri galdera bat egin nahi diozunean, edo denda zein tabernara zozazunean, zein hizkuntza erabiltzen duzu lehen eskaera hori egiteko? Pentsatu gabe egiten dugunean, aunitzetan, erdarara pasatzen gara. Lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartuz gero euskarari ate aunitz irekiko dizkiogu!

Hurrena. Eutsi euskarari. Euskara ulertzen duen horrekin, zergatik ez euskaraz egin? Solaskideak erdaraz erantzuten badizu ere, ulertzen duen bitartean, jarraitu ezazu euskaraz! Elkar ulertzea helburua da, ezta? Hori ere ohitura kontua baino ezta. Beraz, esaiozu, euskaraz ulertzen duen kide horri Euskaraldiak irauongo duen bitartean euskaraz hitz egingo diozula. Azken batean euskaraz ulertzen dugun guztiekin euskaraz egitea proposatzen digu Euskaraldiak. **Zein dira Euskaraldiaren bertuteak?** Euskal Herrian ez dugu ezagutzen modu masiboan hizkuntza praktika aldatzea helburu duen bes-



2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugu

EMAN IZENA!





Ekhine Txokarro Ezkurra, Nafarroako Euskaraldiko sustatzailea eta Malerreka eta Bortzirietako dinamizatzailea da. UTZITAKOIA

te ekimenik. Ariketa eraginkorra da, praktikoa eta erreala, ez da euskararen aldeko kanpaina soil bat. Badakigu hizkuntza praktikak aldatzea eta inertziak apurtzea ariketa zaila dela, baina erronka erreala eta egingarriak planteatzen ditugu. Gainera, hizkuntza komunitatea ere batzen du, elkarlanean eta Euskal Herri osoan, momentu berean, egiten den ariketa baita. Euskararen normalizazioan eragiteko tresna paregabea dugu Euskaraldia. **Zergatik adierazi duzue mugimendu izaera?**

Aurtengo edizio honetan, *elkar mugituz egingo dugu* leloak ongi adierazten duen bezala, hizkuntza portaerak aldatzeko helburu hori oinarritzat hartuta, euskararen erabilera aktibatuko duen mugimendua ere sortu nahi dugu laugarren edizio honekin.

Zein garrantzia du mugimendua masiboak izateak?

Hainbat arrazoiengatik da garrantzitsua Euskaraldia mugimendu masiboak izatea. Batetik, hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera handiagoa ematen du. Hizkuntza ohiturak aldatzea zaila da, baina jende askok momentu berean horren alde egiteak erraztasuna dakar inertziak hautsi eta euskararen erabilera sustatzeko. Bestetik, gizartean eragin handiagoa du. Euskaraldiaren mezua zabaldu eta errozteko aukera gehiago ematen

ditu. Zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta normalizatuagoa egongo da.

Horrekin batera, erreferente berriak sortzen ditu. Jende askok parte hartzean, euskaraz bizitzeko eredu berriak ere agertzen dira. Hori oso garrantzitsua da belaunaldi berriendako eta euskarara indartu nahi duten horiendako. Gainera, euskararen ikusgarritasuna handitzen du. Mugimendu masiboek erakusten dute euskara erabiltzeko edo ulertzeko gaitasuna duen jende asko dagoela.

Aldi berean, Euskaraldiak makina bat eragileren inplikazioa sustatzen du. Herritarrek ez ezik, erakundeek, zerbitzuek, komertzio txiki zein enpresa handiek, komunikabideek... badute inplikatzeko aukera eta

"ARIKETA ERAGINKORRA DA, PRAKTIKOA ETA ERREALA, EZ DA KANPAINA SOIL BAT"

"EUSKARA GEHIAGO ERABILTZEKO BELDUR EDO LOTSA DUTENEK BABESA SENTITZEN DUTE"

ardura. Eta horrek, nola ez, euskara sustatzeko baliabide gehiago aktibatzen ditu. Azkenik, iraunkortasuna eta etorkizuneko oinarriak ematen ditu. Gaur egun hizkuntza portaera deitzen diogun horri, etorkizun batean arau sozial bilakatzeko pausoak markatzen ditu Euskaraldiak.

Euskaraz bizitzeko aukerak sorrazten ditu?

Bai, eta inolako zalantzarik gabe gainera. Euskaraldiak, aurretik aipatu dudana bezala, hizkuntza ohiturak aldatzeko proposamena egiten du, eta horrek eguneroko egoeretan aplikatuz, euskara erabiltzeko ohitura zein praktika berriak sustatzen ditu. Gainera, harreman sare berriak ere sortzen dira, hizkuntza praktikak euskaraz garatzeko ingurune lagungarriak sortzen baitira. Horretaz aparte, Euskaraldiak ere euskaldunak aktibatzen ditu eta espazio berrietan euskaraz aritzeko bideak ere irekitzen ditu: lantokietan, dendetan, tabernetan, eta abarretan. Ahobizi eta Belarriprest rolen bitartez, euskara sustatzeko eredu berriak ezartzen dira. Azken finean, Euskaraldiak euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzen ditu hainbat moduren bitartez, hizkuntza erabilgarri bihurtu nahi du eta horrekin batera hiztunak aktibatzen.

Hizkuntza erabilerako inertziak aldatzeko hamaika egun. Nahikoa da?

Badakigu ez dela erraza 11 egunetan hizkuntza ohiturak erroterik aldatzea, horrela balitz aspalditik aldatuak izango genituen! Baina, hala ere, badakigu Euskaraldia prozesu horretan abiapuntu garrantzitsua dela. 11 egun horietan ariketa ongi eginez kontzientzia pizte bat ematen da; parte hartzaileek euren hizkuntza portaerez hausnartzen dute, eta askotan konturatzen dira euskaraz egiteko uste baino aukera gehiago ditzutela. Arau sozial bihurtu nahi ditugun hizkuntza ohitura horien aldatetan esperimentatzeko aukera ematen, 11 egun horietan hori garatzeko testuinguru berezi bat sortuz, eta horrek konfiantza gehiago sorrarazi dezake parte hartzaileengan. Horren ildotik, euskara gehiago erabiltzeko beldur edo lotsa dutenek laguntza eta babesa sentitzen dute.

Horren eragina zein da?

Badakigu Euskaraldiak 11 egunetan hizkuntza ohiturak erroterik

aldatzea ez duela bermatzen, baina aktibazio sozial handia eragiten du eta hiztunen kontzientzia pizten du. Benetako aldaketa iraunkorra lortzeko, Euskaraldiaren ondoren hizkuntza ohitura horiek sustatzen jarraitu behar dugu. Beraz, tokian tokian aktibatzen diren batzordeei deia luzatzen diegu euren herrietan aktibazio horrekin jarraitzeko. Luzatu dezagun hizkuntza ohiturak aldatzeko praktikak urteko gainontzeko egun guztietara ere!

Beraz, elkar mugituz, zer egingen dugu?

Elkar mugituz euskararen biziberritzerako bideari ekinen diegu! Elkar mugituz Euskaraldiaren eragina ez da egun batzuetara mugatuko, baizik eta gure egunerokoan iraungo du! Txikitasunean, pausoz pauso, hizkuntza-ohiturak aldatu, euskararen erabilera handitu eta hizkuntzaren normalizazioa lortuko dugu! Handia da tokian tokian zein Euskal Herri mailan egiten ari garena!

AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskara ulertzen dudanez eta nire hizkuntza ohiturak eraldatu nahi ditudanez, Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut?

Ariketa izango den 11 egunetan ulertzen duten guztiek nire euskaraz egiteko prest al zaude?

BAI, BETI

- 1) Lehen hitza euskaraz egingo dut.
- 2) Elkarriketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.



BAI, NAHI ETA AHAL DUDANEAN

- 1) Dakitenei nire euskaraz hitz egiteko eskatuko diet uneoro.
- 2) Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.





ASTEKOA

ERKUDEN ALDASORO ERREA

Eta lasaitasuna erresistentzia forma bat balitz?

John Bergerrek zioen gizartea edo pertsonak shock egoeran sartzen garenean identitatea eta gure pausoen norabidea galtzen ditugula, eta orduan, lasaitasuna bihurtu daitekeela erresistentzia modu bat.

Bergerrek askotan aipatzen du nola botereak, kultura eta beste hainbat tresnen bidez, era zabal batean kontrolatzen duen gure begirada munduarekiko, edo nola espermentatzen dugun bizitza.

Gure egunerokoan, geroz eta handiagoa da zarataz inguratuta gaudelako sentsazioa, eta hori gaur egungo garaien adierazgarri bat ere izan daiteke. Eta pentsatzen jarrita, eguneroko adibide argi bat izan daiteke guri berriak emateko erabiltzen duten modu erabat efektista, batez ere, albistegietan eta sare sozialetan. Bide beretik iristen zaigu beldurra, sentsazionalismoa ez delako soilik produktu saltzaile bat, beldur sortzaile bat ere badelako.

Eta guk zer egin dezakegu? Lasaitasunak ezin ditu ordezkatu sentitzen ditugun amorrua, tristezia, beldurra eta antzeko sentipenak, bidezkoak bezain ulergarriak. Baina lasaitzea lagungarri izan daiteke halako sentipenek sortzen ditugun shock egoeran. Izan ere, shock-ean gauden

bitartean, gure pentsatzeko gaitasuna nolabait bahituta gelditzen da, eta zarata moduko horrek hartzen dizkigu erantzuteko erabil genitzakeen denbora eta gaitasuna.

Lasaitasuna tresna bat izan daiteke fokua behar den lekuan jartzeko. Zaratatik urrundu, eta lasaitasuna lagun, barrura eta inguru hurbilera begiratzen hasteko. Beldurrik gabe.

Horretarako balio ahal digu lasaitasunak.

GUTUNAK: Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren asteko GUAIXE ASTEKARIA izanen da udaberriko oporren aurreko ohiko astekaria. Apirilaren 16an GUAIXE ASTEKARI berezia izanen da.

HARA ZER DIEN

AHTaren zundaketen harira

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Pasa den asteburuan Altsasu eta Olaztiren artean zundaketen aurkako mendi martxa burutu genuen, Sakanan egin dugun laugarrena.

Oraingoz hiru zundaketa saiakera egon dira hainbat herritan, guziak legez kanpokoak eta herritarren borondatearen aurkakoak. Aurrena Ataunen egiten saiatu ziren baserritar baten baratzean inongo baimenik gabe. Ondoren Otsobiko trenbide parean daukan lurretan saiatu ziren Itzako

udalari inongo baimen edo jakinarazpenik egin gabe.

Atzeneko saiakera, hemen Sakanan, Izurdiagan izan zen, herriko sarrerako bideberrian Nafarroako Errepide Sailaren baimenarekin eta Adifen onespenerekin, baina Arakilgo Udalean inongo baimenik eskatu gabe. Soilik hiru udal hauetako alkateen jarrera irmoak eta herritarren aurkaritzak saihestu zituen legez kanpoko zundaketa hauek burutzea.

Diktadura garaiko lege batzuetan oinarrituz, orain esaten digute baimen guziekin eta legearen barnean behin-behineko desjabetzeak eginez eta urgentziatzeko prozedura erabiliz, sakandarron eta udalen eta jabe pribatuen gainetik igaroko direla zundaketa horiek egin ahal izateko.

Hori dela eta, Sakanan zundaketen eta AHTaren

aurkako koordinazioa zabalitzen eta handitzen ari gara gure bailara betiko baldintzatuko lukeen AHT plataforma berri bat egin ez dezaten saihesteko.

Sakanan, Urbasa-Andian eta Aralarren bizi garen pertsona eta animaliek ezinen genuke AHTa bezalako beste makro azpiegitura bat jasan. Hormigoizko hesi berri honek gure lurra okupatu, natur gune pasak eten eta zarata, bibrazio eta mota guzietako kutsadurak sortuko lituzke Sakanari inongo zerbitzurik eman gabe, bai eraikuntza fasean eta bai behin martxan jarrita.

Horregatik, gure bailaran eta gure ingurumenean osasuntsu eta duintasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Zundaketak Stop! AHTrik ez!

GUTUNA

153.600€

KAI KARASATORRE MARTINEZ

ASKE ANTOLAKUNDEAREN IZENEAN

Hori da Eusko Jaurlaritzak, pasa den 2023ko abenduaren 30ean Zaballako espetxean Euskal Preso Politikoei elkartasuna adierazteagatik eta Amnistia osoa aldarrikatzeagatik 128 pertsonari ezarritako isuna, 12 sakandar tarteko.

Hori gutxi balitz, heriotza-mehatxuak, ukipenak, grabaketak eta kolpeak pairatu behar izan genituen Ertzaintzaren partetik. Eta orain, 128 pertsona hauen isunen helegiteak jarri ondoren, helegiteok ukatuak izan direla jakinarazi digute.

Dena den, ez da harrizkoa, helegitearen baiezkua edo ezezkoa onartzea Ertzaintzari dagokiola ulertuta. Izan ere, Mozal Legeak berak militantzia politikoa suntsitzeko eta poliziaren inpuniate osoa mantentzeko espainiar estatuak daukan estrategia zikina da.

Hortaz, kasu hau ezin dugu modu isolatuan ulertu, espainiar estatuak zein Eusko Jaurlaritzak darabilten tresna errepresibo gisa ulertu behar baitugu. Isun jasanezinen bitartez, antolakunde politikoen jarduna anulatzeko helburua dute. Gainera, errepresio forma honen xedea da, zuzeneko jazarpen edo biolentzia fisikoa baliatu gabe

ere, antolakunde politikoen jarduna baldintzatzea.

Beraz, honen aurrean antolatzea dagokigu, sistematikoki aplikatzen ari diren errepresio forma honi aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak sortuz eta hauen salaketa zein intenzionalitatea agerian jarritz.

Gauzak horrela, dei egiten dugu apirilaren 5ean Olaztiko Maisuenea gaztetxean egingo den tekno gauera bertaratzera, baita hurrengo egunetan egiten jarraituko dugun elkartasun egunetan parte hartzera ere. Antolakuntzaren eta borrokaren hautua eginda lortuko baitugu soilik Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa.



www.guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Sunsundeguiako langileak azokan asteazkenean egindako elkarretaratzean.

Sunsundeguiari likidazio data jarrita, apirilean zirt edo zart egin beharko da

Likidazioa apirilaren 14an egingen da eta hamabost eguneko kontsulta epea zabalduko da, hilaren 30era arte. Bitarte horretan inbertitzailea aurkezteko aukera dago oraindik. Egoerarik okerreanean, langileak gutxienekoa jasoko lukete

ALTSASU Belgikako Dumarey taldeak Sunsundegui eskuratzeari uko egin ziola jakin zen martxoaren 28an. Langileek ez zuten espero inbertitzaileak atzera egitea. Eta ez dakite haren negoziazio estrategiaren parte ote den. Horren ondoren, konkurtsoaren administratzaileek enpresa batzordeari jakinarazi zieten Sunsundegui likidatu egingen dutela zorrei aurre egin ezin dielako. Enpresaren likidazio prozesuaren hasiera apirilaren 14an izanenda, eta apirilaren 30ean lan kon-

tratuak azkentzeko enplegu erregulazioeko espedientea (EEE) sartuko litzateke indarrean.

Sunsundeguiako konkurtsoaren administratzaileek langileen ordezkariari adierazi zieten, "dena itxita dagoenez, epeak laburtu daitezke eta apirilaren 14an likidazioa eta EEE egin daitezke. Baldin eta enpresa batzordeak 14an hasten den kontsulta epeari (15 egun) uko egiten badio". Uko egiteko enpresa batzordearen gehiengo behar da. Eta, antza, sindikatu batzuk ez daude horren alde. Gainera,

likidazioa hasteak ez du esan nahi derrigorrez enpresa behin betiko itxiko dela, likidazio prozesuan ere inbertitzaileak ere ager daitezkeelako. Langile gehienak lantegia zabalik mantentzea lortzeko azkenera arte borroka egiteko prest daude.

Enpresa likidatuko balitz, 50 milioi euroko zorra ordaintzeko guztia saldu beharko litzateke eta 27 milioi baino askoz ere diru gutxiago lortuko litzateke. Salmentako dirua, lehenik, langileen kaleratzeak pagatzeko litzateke. Beraz, ez dirudi 314

hornitzaile eta hartzekodunek kobratuko dutenik. Inbertitzaileak atzera egitean 50 milioi horiek "galdu, desagertu" egingen dira. Langileek Fogasaren bidez lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko diru saria jasoko lukete, gutxienekoa. Konkurtso administratzaileek azaldu dutenez, "ekonomia arrazoiek eragindako itxiera denez, ezin da kalte ordaina handitu, beste edozein zordunek ez du baimenduko eta inpugnatu egingen luke. Haiei dirutza zor zaie eta ez dute onartuko diru gehiago ematea".

Enpresaren aurreko krisi garaian langile batzuk akziodun egin ziren 915 euro jarrita. Jabetzaren %49 zuten hasieran, baina batzuek saldu egin dituzte. Itxiz gero, akziodunak diren 80 bat langileek diru hori ere galduko lukete.

Inbertitzaileak atzera egin du

Langileen ordezkariak bi bertsio dituzte. Batetik, Dumarey taldeak dio, alde batetik, 5 milioi jarri nahi zituztela lantegia apirilaren 1ean martxan jartzeko dauden autobusak bukatzeko. Bestetik, Sunsundegui onbideratzeko baina Dumarey enpresa nagusia sartu gabe, beste 5 milioi jarriko zituztela. 10 milioi eta ez konkurtso administratzaileen txostenak dioten 3,5 milioiak. Dumareykoek diote lurren kutsadurari eta haiekin egin beharrekoari buruzko txostena ez dutela jaso, ez amiantoak kalte-tutakoen zerrenda, ez eta langile bakoitzari zein postu dagokion zehazten duen langileen zerrendarik ere, beharrezkoa lantegia martxan jartzeko. Agiri horiek ez zituztelako atzera egin zutela adierazi zieten langileen ordezkariari. Gainera, lantegien balioaren inguruko desadostasunak zituzten.

Bestetik, zuzendaritzak eta konkurtso administratzaileek enpresa batzordeari azaldu ziotenez, duten informazio guztia eman diote Dumareyri. Salbuespena amiantoagatik jendeak aurkez ditzakeen eskaerak, hori jakiterik ez dutelako. Adminis-

tratzaileek "inbertitzailearen proposamena ez dute kontuan hartu serioa ez zelako".

Enpresa batzordekoak Sodena enpresa publikoko ordezkariekin elkartu ziren atzo. Juan Antonio Lopez Cidek (CCOO) azaldu duenez, "zorrek 50 milioi euroak modu batera edo bestera galdu egin behar dira. Inork ez ditu kobratuko. Beraz, egin dezatela 2009koa eta enpresa euro bategatik eros dezatela, orduan bezala, orain ere zorra barkatuta eta enpresa martxan dela. Bestela, Nafarroako Gobernuaren laguntza eta babesaz kooperatiba edo lan sozietate anonimoa sortzea. Mikel Irujo Amezaga kontseilariak enpresa batzordeari hori lagunduko zutela esan zion bilera batean. Behintzat, Sunsundegui ez dadila itxi".

Kooperatibaren aukera konkurtso administratzaileei eta Nafarroako Parlamentuari aurkeztu zieten, baina langileen ordezkariak ez dute erantzunik jaso. CCOOko kideak esan duenez, "gure gain uzten dute hori guztia mugitzeko ardura. Baina guk ez dakigu, horretarako laguntza behar dugu". Lopezek gaineratu duenez, "Sodenak orduan Jose Ignacio Murillo Garralda inolako kontrolik gabe buru jarri zuen. Oraingoan jar dezatela enpresa kudeatzaile bat, baina kontrola dezatela, gertatu dena ez pasatzeko".

Juan Ignacio Palacio Balek (ELA) esan duenez, "Sodenari eskatu diogu engainuzko enplegu erregulazio espediente bat den iker dezala. Ea Sunsundeguiaren egoeraren ardura norbait den". ELAkoak azpimarratu duenez, "zuzendaritzaren alde-tik antolakuntza kudeaketa txarra izan da". Adibide gisa jarri du "Volvo atzera egin zunean, Sunsundeguiako 250 langileak lanik gabe geunden eta, hala ere, Volvo proiekturako kontratatutako 150 langileak bereganatu zituen enpresak. Gehiegizko plantilla zegoen". Erredakzioa itxi aurretik ezin izan dugu UGT eta LABekoan iritzirik jaso.



**TALLERES
GOÑI
TAILERRAK**




- Kristal aldaketak
- Llanta berritzeak
- Adeitasun autoa doan
- Barruko eta kanpoko garbiketa



Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Elkartasun azokako antolatzaileak eta eta erakunde laguntzaileetako ordezkariak.

"Herri mailako ekimen bat izan behar zuen"

NAROA ANSO, JUAN PABLO SANTANO ETA IÑIGO ORELLA ANTOLATZAILEAK
Hainbat eragilek estreinakoz elkartasun azoka antolatu dute Etxarri Aranatzan. Larunbatean 17:00etatik 20:00etara, plazatik pasatzeko gonbidapena egin dute

A.A.I. ETXARRI ARANATZ
Naroak Anitzartean ordezkatzan du, Juan Pablok eskola eta Iñigok ikastola. Elkartasun azokako antolatzaileak laguntzen honakoak ari dira: Etxarri Aranazko Udala, Etxarri Aranatz aldeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Etxarri Aranazko boluntario taldea, Sakana Harrera Harana eta Nafarroako Gobernua. **Zergatik antolatu duzue elkartasun azoka?**

Naroa. Sakanako ertzetan bazeuden elkartasun azokak, baina ez, ordea, erdiko aldean. Eta Etxarri Aranatz egitea pentsatu genuen. Herri nahikoa anitza da. Eta anitzasun hori

plazaratzeko egokiena iruditu zitzaigun Etxarrin egitea.

Zeinek antolatu duzue?

Juan Pablo. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua, Andra Mari ikastola, San Donato eskola, eskolako guraso elkarte eta Etxarri Palestina elkartasun taldeak. Antolakuntza ere nahiko anitza. **Azokatik pasatzen denak zer opatuko du?**

Iñigo. Gure ikasleen, familien etxeetan egoera onean zeuden gauzak. Bigarren edo hirugarren bizi baten bila dauden gauzak. Kontsumo arduratsua egiteko aukera bat izanen da azoka, elkartasun ikuspegia lantzeko, eta gure inguruan

ekonomia aukera txikiagoa duten familiei horiek eskuratzeko aukera emanen zaien. Hainbat balio lotzen dira: elkartasuna, jasangarritasuna eta, gainera, bertatik bertara.

Geroz, bi ikastetxeetako komunitateak inplikatu dituzue elkartasun azokarako material bilketan?

J.P. Bai. Gure kasuan eskolako irakasleak, zuzendaritzak, baita

guraso elkarteak ere. Azken horren bidez familiak inplikatzeko lortu dugu, eta eskolara gauza pila ekarri dituzte. Bestalde, ikasleak ere protagonista handiak dira. Helburua zein den kontatu diegu. Beraiek jakinaren gainean daude. Ez da lehen aldia eskolan halako elkartasun ekintzak egiten dituztenak. Ezagutzen dute palestinar herriaren Historia, eta gaur egun gertatzen ari dena. Eta, gustu handiz, beraien aletxoak jartzen ari dira. Beraien eskularen bidez larunbaterako material gehiago sortzen ari gara. Inplikazio handia dago eskolan.

I. Ikastolan ere oso harrera ona izan du. Adin jakin bateko ikasleek parte hartuko dute. Urtez urte halakoak lantzen dituzte, baina halako elkartasun kontuak gehiago barrura begira egiten dira. Honek bestelako dimentsioa dauka, oso garrantzitsua. Ikasleen artean harrera ezin hobea izan dugu, baita familien artean ere. Ezinbestekoa da azoka beraien unibertsoan kokatzea eta agerian uztea haiek modu batera bizi direla eta beste batzuek ez dituztela aukera berak, eta haiekiko elkartasuna adierazi behar dutela. Keinu oso polita da, lantaldean aritzeko, modu kooperatiboan, herriko beste eragileekin batera, eta elkartasun helburu batekin.

Elkartasunaren helburua zein da?
N. Iruditzen zitzaigun herri mailako ekimen bat izan behar zuela, eta denok elkartu behar genuela halako egoera zaila daukan

Palestinako herriari elkartasuna adierazteko.

Herrian azokaren inguruan mugimendu bereziren bat sortu da?

J.P. Lehendabiziko urtea da eta bidea zabaltzen ari gara. Guk gure inguruko jendearen sentipena jaso dugu. Eta ikusten da jendea sentsibilizatzen ari dela. Eta lehendabiziko pauso bat izanen da. Espero dezagun heldu den urtean beste elkartasun azoka bat bideratu behar ez izatea Palestinako herriari. Baina beharko balitz, atea zabaldu dugu.

I. Gurean ere antzeko. Azpimarratzekoa da bi ikastetxeek eta udalaz aparte, Etxarri Palestina elkartasun taldea hor dagoela. Palestinan bizi duten egoera latza da, eta horri ikusgarritasuna emateko oso momentu egokia da. Eta ikasleengan, familiengan horrekiko sentsibilizazioa sentitzea ongi dago. Elkartasun azokak herrian hondarra utziko duela uste dute. Azokan herria bizirik ikusiko da, elkarri laguntzeko prest.

Azoka arratsaldean.

N. Lehen aldia da halako azoka bat arratsaldean antolatzen duguna. Ea zer moduzkoa den. Egunetegi kontuengatik eta hainbat arrazoiengatik ezin izan dugu goizez egin.

Aurrena eta azkena?

N. Ez. Lan egiten jarraituko dugu, ahal dena jende eta elkarre gehiagorekin. Ez duena halako elkartasun azokarik ezagutzen, pasa dadila plazatik.

Igandean Altsasun

Laugarren elkartasun azoka egingen da Altsasuko estalpean, domekan, 11:00etatik 13:30era arte. Bi hilabeteko material bilketaren ondoren, Sakana Harrera Haranako Josu Rubio Mendiluzek azaldu duenez, "biltegia nahiko beteta" dute. Bilketa lanean Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan material bilketa egiteaz aparte, ikasle batzuen laguntza izan dute jasotakoa sailkatzen, eta domekan ere. Rubiok azaldu duenez, "azokan kalitatezko gauzak egonen dira: arropa, jostailuak, jokoak... Aurten joan zen urtean baino gehiago dago". Azokaz aparte, txapa tailerra, kooperazio jolasak, jatekoak eta salmenta postua izanen dira.

Elkarri Laguntza elkarteak etorriko dira nor diren eta zer lan egingen duten azaltzera. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuko Begoña Zestau Baraibarrek azaldu duenez, "egoera zaurgarrian dauden Iruñeko 300 bat familiekin lan egiten du, batzuk kalean bizi dira".

Azokarekin "elkartasuna hainbat mailatan" adieraziko dela azaldu du Zestauk. Batetik, "jasotako materiala oso modu onean salduko delako. Ekonomia egoera zailan dagoen jendeak egoera onean dauden gauzak erosteko aukera izanen du". Bestetik, "azokarekin gure kontsumo ohituren inguruan hausnartzera bulkatzen dugu".

Azkenik, salmentatik lortutako dirua Elkarri Laguntza elkarteari emanen zaio. Salmahaien bueltan izanen direnak hainbat kulturatako pertsonak izanen dira. "Horrekin elkar ezagutzeko bideak sortu nahi ditugu". Azoka Anitzarteanek eta Sakana Harrera Haranak antolatu dute Altsasuko Udalaren, institutuaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Azoka posible egin dutenendako bazkaria izanen da akaberan.

Errefuxiatuen eguna garagarriaren 20an da. Zestauk esan duenez, "Altsasun eta Olatzagutian ongi etorri errefuxiatuak eta migratuak zikloa antolatzen ari gara maiatza eta garagarrierako". Aurreratu duenez, errefuxiatuei zuzendutako azoka izanen da.

Aukera
ZURE BIDEA ELKARTU
EQUINO AUKERA

EKINOTERAPIA
Behar bereziak dituzten pertsonentzat (TDAH, TEA, ikasteko zailtasunak, arazo emozionalak...)
SAIOAK, ASTEAN ZEHAR

ESPERIENTZIAK ZALDIEKIN

- Haur-taldeentzat
- Familientzat
- Helduentzako ongizate saioak (banakakoa/taldea)

Arimatu eta erreserba egin

Intza - Arantz Ballara (Nafarroa)
639 37 06 45
equinoaukera@gmail.com

TX
TXARTEL
Herriko Buztegi - 48100 BILBAO

ZURE BIDALKETAK
ESTILOAREKIN PERTSONALIZATU
Oinain gutunazalelan zure marka gehitu dezakezu

www.txartel.net

"Jardunaldiak aurten ere interes handia piztu du"

ITZIAR PAZOS LAZKANO LAKUNTZA

Sakanako Herri Eskolek, Nafarroako Landa Eskolen sarearekin elkarlanean, VIII. Landa Eskolen Jardunaldiak antolatu dituzte.

A.A.I. LAKUNTZA

Lakuntzan izanen da larunbatean, 10:00etatik 14:00etara. Jardunaldiak Lakuntzako Udalaren laguntzaz antolatu dituzte.

Lakuntzak VIII. Landa Eskolen Jardunaldiak hartuko ditu larunbatean.

Landa eskoletan "ahaztuak" izanaren sentsazioa dugu. Edozein lege-edo egiten denean, beti izaten da eskola handiei begira. Gure errealitatea inoiz ez da, gehiegi behintzat, aintzat hartzen. Jardunaldiak sortu ziren landa eskoletako irakasleen arteko topaketa gisa. Aldi berean, esperientzia edo praktika hezitzaileak partekatze topagune gisa. Elkarren artean esperientziak partekatu, ikasi. Horiek ziren helburu nagusiak. Horretaz aparte, landa eremua eta landa eskolen ikusgarritasuna bermatzea. Landa eremua bizirik mantentzeko beste ahalagin bat da, baina hezkuntzaren ikuspegitik.

Zeini zuzenduta daude?

Nafarroan landa eremuko eskoletan lanean ari diren irakasleei zuzenduta daude. Egun Nafarroan 64 landa eskola daude. Sakanako bederatzi eskoletatik sei dira landa eskolak: Uhartea, Lakuntza, Arbizu, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutiakoak. Gainontzeko hiruak (Irurtzun, Etxarri eta Altsasu) tamainagatik ez dira landa eskolatzat hartzen. Gutxienez bederatzi gela badituztelako. Hala ere, Sakanan eskola guztiek sarean lan egiten dugu. Eskertzen da eskola handi horiek gure eguneroko zereginetan bustitzea. Jardunaldi horietan ere aktiboki parte hartuko dute.

Zein dira landa eskolen bereizgarriak?

"LANDA EREMUA BIZIRIK MANTENTZEKO BESTE AHALEGIN BAT DA, BAINA HEZKUNTZATIK"

Bederatzi unitate, gela, baino gutxiago izatea. Hau da, gutxienez ikasgelaren batean bi adinetako haurrak elkarrekin daude, kopuruek ez dutelako ematen adin bakoitzerako talde bakarra sortzeko. Baldintza horiek betetzen dituzten eskolak dira landa eskolak.

Zeren inguruan ariko zarete?

Topaketa horietan beste irakasleei praktika onak edo esperientziak azaltzen zaizkie. Batzuetan eskualdean bertan ez dago nahikoa jende. Guk zorzea dugu, gure eskualdeko irakasle asko animatu dira eta, beraz, topaketan Sakanako herri eskoletan garatzen diren meteorologia edo hizkuntza praktikak azalduko dira. Lehenengoa orokorra izango da, Lakuntzako eskolak aurkeztuko duena, joan zen urtean garatu zuten *Geroaren bidean* proiektuaren inguruko izanen da. Hamaiketakoaren ondoren, praktika onen txanda izanen da. Han irakasleak banatuko ditugu. Eta dauden praktika onen

inguruan irakasleek beraien lehen-tasunak aukeratuko dituzte. Dauden horien guztien artean irakasle bakoitzak bi entzungo edo jasoko ditu. Guztiak, esan bezala, Sakanako eskoletako metodologiaren ingurukoak dira.

Urtetik urtera jardunaldietako gaietan bilakaerarik izan da?

Desberdinak dira. Batzuen eta besteen artean harreman gehiago edo antzekotasuna izan dezakete. Baina, orokorrean, urtero gauza berriak lantzen edo partekatzen saiatzen gara.

Jardunaldietako jasoko duzue?

Bakoitzak bere motxilan badarama. Gainera, Hezkuntza Departamentuko webgunean zintzilikatuko da topaketan erabiltzeko materiala. Horretaz aparte, bada aitzakia ere kontaktuak sortzeko. Norbaiti zehazki ikastetxe bateko praktika on batek interes berezirik piztu badio, bada aukera bat ere hortik kontaktu bat lortzeko eta jardunaldi horietatik kanpo elkarrekin ha-



Sakanako eskolen zuzendaritzen sareko bilera. Itziar eskuinean. UTZITAKOIA

rremanetan jarri eta haien artean ezagutza partekatzeko.

Halakoetara Hezkuntza Departamentukoak joaten dira?

Esan digute etorriko direla. Beraiek kontziente dira araudietan dena eskola estandar horietarako egiten dela. Beti tokatzen zaigu pixka bat gainean egotea. Baina hezkuntza arloan ez ezik, beste hainbat alorretan ere hala gertatzen da. Garrantzitsua da landa eremuan bizi garenok, bakoitza bere esparrutik, hori aldarrikatzea. Eta herri txikien bizi iraupenerako hezkuntza zerbitzu egoki bat, osasun zerbitzu publiko aldarrikatzea tokatzen zaigu. Kasu honetan, gainera, herri baten iraupene-

rako ere garrantzitsua da eskola herrian bertan izatea.

Departamentukoekin kontaktuak sortzeko balio badute, ederki, ez?

Bai. Badakigu jardunaldiak aurten ere interes handia piztu duela. Gonbidapena badute, espero ditugu. Bueno badakigu, esaterako, Nafarroako Unibertsitate Publikotik irakasle pare bat badatozela. Castellonetik eta Errioxatik ere bai. Nolabait unibertsitateetan ere garrantzitsua da irakasle ikasketako ikasle berriei ikastetxe hauen errealitatea ezagutaraztea. Eta jakitea posible izan daitekeela beraiek landa eskola batean lan egitea, eta ez nolabaiteko gela estandar batean. Nafarroa osotik ia laurogei irakasle etorriko dira ere.

DB RECICLAJES INDUSTRIALES
BALDA DECONS

Txatar-bilketa

Edukiontzia enpresen zerbitzura

Egiturazko eraispennak eta eraispenn mekanikoak

948 600 169 • balda@decons.es

IG-ER ARKITEKTURA

Andoni IGoa 693473951
Iñaki ERDOCIA 647226325

Proiektu berriak, zaharberitzea,
Passive House diseinuak, egurrezko
arkitektura, fatxadaren isolamendua,
Igogailuak, aholkularitza, IEE, etab.

DESIGNER

CERTIFIED PASSIVE HOUSE DESIGNER

Izan giltzarri!



Jesus Mari Mendinueta Urdanoz Ofizioz elektrikaria. Afizioz...

Atsaldeon!

Sakanan bizi eta lan egin nahi dugulako.

Sakanako eragile guztiak indartsu eta lanean behar ditugulako.

Eguneroko lanak ematen dituen fruitu goxoak ikusita:

Goazen denok, segi lanean!

Gora Guaixe! Izan Giltzarri!

Eta segi lanean, urte askotarako!



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)

"Egun automatizazioa oso garrantzitsua da"

ANDER MALLECO ETA AITOR FERNANDEZ AUTOMATIZAZIO ETA ROBOTIKA IKASLEAK Sakana Lanbide Heziketa institutuan ikas ditzaketen goi mailako lau zikloetako bat da automatizazioa eta robotika

A.A.I. ALTSASU

Enpresek ez zuten jende trebatu-rik makina batzuekin aritzeko edo lan batzuk egiteko, eta Hezkuntza Departamentuari galde-zioten. Eta ikasten ari diren zikloa horretara begira ezarri zuten. Hala azaldu du Mallencok. Ikasketek balio dute ondoren industriako automatizazio sistemen proiektuak garatzeko, muntaia kudeatzeko eta gainbegiratzeko eta industriako automatizazio sistemak mantentzeko.

Zer da automatizazioa?

Aitor. Programa edo zirkuitu bat egiten duzu, ondoren makinak, automatak, lan jakin bat berak bakarrik egiteko.

Ander. Automata programatu egiten dugu. Automatan hiruzpalau gauza programa ditzakezu eta ezarritako ordenean egiten ditu lanak. Pieza beste automata batera pasa daiteke eta hala automatoren katea egin dezakezu.

Produktio lerro batean automatei ordenak sartzen dizkiezue?

Ai. Hori da, bai. Normalean industriaren egiten da.

An. Fabriketako produktio kateetako beso horiek dira. Esate baterako, enpresa batean piezak egin behar dira. Zuk pieza hartzen duen robotak baduzu, beste robot bati pieza eramango diona hark zulangailuarekin zuloa egin die-



Aitor eta Ander, ezkerrean, ikaskide batzuekin eta irakasleekin tailerlean.

zaion. Zulodun pieza hori beste robot batek hartuko luke eta saski batean sartuko luke, pieza margotzeko, adibidez. Beso mekaniko horri aginduak ematen ikasten ari gara, baina hura erabiltzen ere.

Horretarako, zer ikasten duzue?

An. Nik Mikroinformatika Sistemak eta Sareak ikasi nuen, eta elektrizitateaz ez nekien ezer ez. Azkenean dena ulertzen duzu. Niretako hasieran zaila izan zen. Elektrizitate ezagutza pixka bat behar duzu: zirkuituak egin, konexioak, botoiak jarri eta abar-

Ai. Programazioa, pneumatika, beste zikloetan ere ematen den laneko prestakuntza eta orientabidea ikasketak ere baditugu.

Teoria bai, baina praktika ere, ezta?

Ai. Lehen kurtsu honetan teoria asko da. Baina proiektu asko egiten ditugu, eta dena automatizatu.

Izena ematean argi zenuten zer ikasketak ziren?

An. Gutxi gorabehera dena ia berria denez, ongi hartu ditugu ikasketak. Gauza berriak esperimentatu ditugu, politikak diren gauzak ikasi ditugu. Ongi.

Orain arte ikasitakoaz, zer iritzi?

Ai. Pozik nago. Baina bigarren ikasturtera pasa nahi dut, zeren lehenengo urtean ez gara ibiltzen robotekin. Eta robotak erabiltzen ikasi nahi dut. Ikasketak ongi doaz eta etorriko da bigarrena.

Ikasketako beharrezko tresneria duzue institutuan?

An. Ziklo honen aurreneko urtea da, eta gauza gehiago jartzeko daude. Baina, momentuz, ikusten ari gara ongi dago. Heldu den ikasturterako gauza gehiago egonen dira.

Automatizazioa eta robotika ikasita, zer lan irteera ditu ikasketak?

Ai. Aukera asko dauzkazu. Gaur egun automatizazio oso garrantzitsua baita, enpresa guztietan dago. Enpresa bateko robotekin aritu gaitezke, mantentze lanak egin ditzakegu...

An. Hemen aurreneko kurtsuan dena ikasten duzu. Lantegian zu bakarrik zaude eta programa dezakezu zure makina edo lantegi osoa, katea sortzeko.

Ikasketak duala da. Enpreetan praktikak egiten hasi zarete?

Ai. Gutxi barru hasiko gara.

An. Lehen kurtsuan 230 ordu inguru dira. Hurrengoan 500.

Ai. Bigarren kurtsuan roboten programazioa eta robotak erabiltzeko behar den informazio tekniko ikasiko ditugu.

An. Gure praktikak intentsiboak dira, hau da, kobratu egin behar dugu. Uste dut enpresek erabakitzen dutela zenbat ordaindu.

Aurretik Lanbide Heziketako ikasketak eginak dituzue. Praktikak egin zenituzten?

An. Ni denda batean egon nintzen, telefonoak konpontzen. Lanean aritu nintzen lehen aldian zen eta esperientzia ona izan zen, nire nagusia oso jatorra baitzen. Hori izan zen aurreneko esperientzia, eta oroitzapen polita dut.

Ai. Nik ere praktikak denda batean egin nituen. Klasean baino gehiago praktikan ikasi nuen. Klasean kasu bat jartzen dizute, baina ez da errealia. Eta enpresa batean lan bat zer den ikusten duzu.

Dendetan lanean, eta lagunak haie-nak konpontzeko eskatu zizueten?

An. Ni telefonoekin aritu nintzen. Esaterako, babes pantaila hautsi eta beste berri eta ahaltsuago bat jartzeko eskatu zidan batek.

Ai. Lagunek nire ikasketa berak egin dituztenez, badakite konpontzen. Baina nire familian esan didate: "ordenagailua ez dabil. Egunen batean begiratu dezakezu?" Azkenean, tontakeria bat zen.

Zikloa bukatuta, ikasten segitzeko asmoz edo lanera?

An. Zikloko bigarren eta azken urtea egin ondoren ez dakit oso ongi zer egin. Beharbada lanera, baina animatzen banaiz beste espezializazio bat edo goi mailako beste gradu bat eginen dut.

Ai. Bigarren urtea bukatuko dut. Eta ez dakit unibertsitatera joango naizen edo lanean hasiko naizen.

Nori gomendatuko zenizkioketen ikasketak horiek?

An. Programak edo automatizazio egitea gustatzen zaien. Gauzak mekanizatu edo eskuekin gauzak egin nahi dituztenei, esate baterako, enpresako robot besoak.

Ai. Elektrizitatea eta pixka bat programazioa gustatzen zaion edonori.

"GAUZA BERRIAK ESPERIMENTATU DITUGU, POLITAK DIREN GAUZAK IKASI DITUGU"

Osasungintza publikoaren eredia zehazteko elkartu ziren

Osasun publikoaren aldeko herri plataformek, Sakanakoa barne, IV. batzar nagusia egin zuten

SAKANA

Osasun publikoaren aldeko herri plataformen bozeramaile Mireia Saezek gogorarazi zuenez, "Euskal Herrian zehar plataformak sortu dira osasungintza publikoaren egoeraren errealitate

gordin bati aurre egiteko". Egoera makur horren adierazle gisa "murrizketak, lehen arretaren suntsipena eta osasun publikoko sistemaren desegitea eta pribatizazioa" zerrendatu zituen. Herrietako osasun plataformek

"ibilbide bat egin dugu eta gure antolakuntza ere beharrezkoa da". Batzarrean haien lana eta zehar lerroak zein diren zehaztu zituzten, beti ere argi izanda azken helburua: "osasungintza publikoaren defentsa sutsua".

Saezek azaldu zuenez, "osasungintza publiko arriskuan ikusten dugu. Herritarrok lehen pertsonan ikusten dugu zein den osasun etxeetako egoera: mediku falta, aurrez aurreko arreta lortzea gero eta zailagoa da, osasungintza pribatura gero eta deri-



Parte hartzaileetako batzuk.

bazio gehiago daude. Hori guztia herritarren interesen kontrakoa da. Horregatik herritarrok plataformetan antolatu gara".

Saezek osasun sistema "publikoa, unibertsala, guztiondako irisgarria" aldarrikatu du. Administrazioari hori exijitzen segituko dute. "Gobernuetan interes kontrajarriak daude, pribatizazioekin zerikusia dutenak. Osasuna ez da negozioa. Osasuna eskubide bat da. Kalitatezko arreta osasun publikoaren bermatuko dugu".



KOLABORAZIOA

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Sakanako lexia konposatuak (XIII)

Galdor-festa egin/eman, Galdor-afari egin/eman
Eraikuntza berri batean, teiltua emandakoan egiten den ospakizuna, bazkaria edo afarria Sakanan. Aezkoako Garraldan *Bukataro egin/eman*. Baztanen *Bizkar besta* egin. Lehen esaldia, Sakanakoa dugu eta bigarrena Baztangoa: *Elduen ostielien kaldor-festa izenen yau elkartien*. (Heldu den ostiralean galdor-festa izanen diagu elkartean.) *Bier dugu bizker-besta. Bizker-besta ederra*. (Bihar dugu bizkar-besta. Bizkar-besta ederra.) OEHN honelaxe dataor jasorik: *"Kaldor pesta (AN-araq), fiesta por el final de una obra o de un trabajo. Satr VocP"*. (...) Bukataro. Final. *Gure bizitzaren postrea, bukateroa ta akabanza*. Azken hau Aezkoakoa da.

Galdugorde (ez) izan, Galdugordegabekoa izan
Aranatzen egun oraindik eta Arakilen erabilia izan da aditz perifrasi hau. Ganora, fundamentua (ez) izan. Bigarrena simple, ganoragabea denari egokitzen zaio. *Eztikobiek oik batee galdubordeik!* (Etxarri Aranatz) (Ez zaukatek horiek batere galdugorderik!) *Aldein zan nee ondoti, galdugordeibeiko txarroi!* (Lakuntza) (Alde egin ezan nire ondotik, galdugordegabeko txar hori!)

Gaztelaniaz *"tener/no tener fundamento"* adieraziko litzateke. OEHN jasoa dago, baina perifrasiaren jatorriko esanahiarekin: *"Eztu galdugorde andirik (G-goi), no tiene mucho que perder o ganar"* A. *'Galdugorde aundik ez du, no tiene mucha diferencia. Ez dauke galdugorde aundirik, no tiene mucho que ganar ni perder'* (...) *Galdugorde aundirik ez du jokatu*. (AN-larr). Inza NaEsZarr 412 (jokatzeke deus gutxi duela esateko).

Ganbela azpikoa Esapide hau, gutxienez etxarriarrek erabilia izan da. Sasikoa. Ezkontzatik kanpoko seme edo alaba. Ganbelaren azpian sortu-takoa. Garai bateko ikuiluetan zurezkoak izaten ziren eta bertatik jaten zuten abereek pentsua eta gainerakoak. Hurrengo esaldi hau Etxarri Aranazkoa da: *Garai betien, ganbelazpiko aurrek, morroi o neskixetako artzen zittubabien*. (Garai batean, ganbelazpiko haurrak, morroi edo neskametako hartzen zitiztean.) Bada OEHN (VIII, 317) antzeko konotaziorik duen esaldia: *"Seaskarik ez zuelako ganbela batean ipiñi zuen. Lard 367. Ganbela siaskataka (Zugarramurdi, 1875) (...)"* Gaztelaniaz *"hijo/a ilegítimo/a"*.

Gezurra egiaren kolorean bota, Gezurra zutik bota Oso



modu nabarmenean gezurra esan. Bi aditz perifrasi hauek etxarrieran ditut jasoa, baina Sakanako euskal hizkeretan dira ezagunak. *Orrek uste dik gu inoxentiek gaala, gezurre egiyan kolorien botatzen zieguk!* (Horrek uste dik gu inuzenteak garela, gezurra egiaren kolorean botatzen ziguk!), *Iguel dek iyorezek ez baziok sinisten dee, biak gezurre zuti botako dik!* (Igual duk inork ere ez baziok sinisten ere, berak gezurra zutik botako dik!). Gaztelaniako ordaina *"mentir descaradamente"* izanen litzateke.

Gezurra gezurraren gainean Esapide hau Sakana gehienean da ezaguna eta aurrekoaren oso antzekoa dugu. Honek gezurraren maiztasuna azpimarratzen du. Gezurrak bata bestearen atzetik botatzea adierazten du. Pertsona oso gezurtia dela adierazteko erabiltzen da. *Ez tikok lotsaik batee, gezurre gezurraren genen botatzen dik atertu be!* (Ez zaukak lotsarik, gezurra gezurraren gainean botatzen dik atertu gabe!). Gaztelaniaz, *"mentir compulsivamente"* esanen genuke.

Gogotik ari izan/eman/ekin, Jo gogotik! Sakana erdialdeko euskal hizkeretan erabiltzen ziren gehien. Erruz,

ugari, asko. Eta esamolde bihurturik ere erabiltzen zen, bat soroko lanetan ari zela, ondotik norbait pasatzerakoan horrelaxe esanez: *Jo gooti!* (Jo gogotik!). *Eman gogor! Lan asko egin! Auriye gooti aittu dek aste guzien!* (Eurria gogotik aritu duk aste guztian!) *Gooti eman berko zioz Irujok Aimar mendiatu nei badik.* (Gogotik eman beharko zioz Irujok Aimar menderatu nahi badik). Baztanen ere erabiltzen da: Gootik gaten dire eskolara (Gogotik joaten dira eskolara). OEHN (*Orotariko Euskal Hiztegia*) honelaxe dator jasorik: *"Gogotik, Verdaderamente, con ímpetu; de buena gana"*.

Goikopekoak ari izan/ bota Etxarri Aranatz jasoa da aditz perifrasi hau. Aurrekoaren antzeko esanahia du, baina kasu honetan eguraldiarekin lotuta agertzen da beti, eurria, kazkabarra edo elurrarekin hain zuzen. Goikoak eta behekoak, guztiak, bota izana adierazten du. *Bart goikopekuek bota zittuk!* (Bart goikopekoak bota ditik!). Gaztelaniaz gauza bera adieraztekotan, *"llover torrencialmente"* erabiliko litzateke.

Goitik buruok! Penagarria bada ere, ezezaguna suertatzen zaio egungo euskal hiztunei dagoeneko esapide hau. Etxarrieran entzun daiteke oraindik adin handiko zenbaitek erabilia. Animo! Altxa burua! Eutsi goiari! Okerren bat gertatutakoan erabiltzen da gehienbat, animoak apal dituenari aurrera egiteko adieraziz. Kirolariari bultzada emateko ere bai. *Bazikiyau momentu txarrak pasatzen ai zariela, beye... goitti burubok!* (Bazakiguk momentu txarrak pasatzen ari zaretela, baina... goitik buruok!) Gaztelaniara *"¡ánimo!, ¡que no cunda el pánico!"* itzuliko genuke.

Goitik zerua eta behetik lurra (gelditu) Erabilera

orokorrekoa dugu esapide hau euskal hizkeretan. Ezer gabe, arruinaturik, beheha jota gelditu edo egon. *Jende guziei launtzen segitzen badezu, goitti zerube ta beti lurre geldittuko zaa!* (Jende guztiari laguntzen segitzen baduzu, goitik zerua eta behetik lurra geldituko zara!). Gaztelaniako ordaina, *"quedarse sin nada"* izanen genuke.

Gora-gora (ari izan) Esapide hau ere euskal hizkera gehienetan da ezaguna. Hizketan edo kantaz boz goraz aritu. Hurrengo adibidea Etxarri Aranazkoa da. *Tabernan gora-gora aittu ttuk kantas gau guzien!* (Tabernan gora-gora kantaz aritu dituk gau guztian!) OEHN honelaxe dator jasota: *"gora-gora En voz muy alta"*. Gaztelaniaz *"a voz en grito, muy alto"*.

Goseak/egarriak garbitzen egon, Goseak/egarriak hilik egon, Izan, Goseak/egarriak amorraturik egon Oso hedatuak dira lehen bi aditz perifrasiak Nafarroako euskal hizkeretan eta hirugarrena, aldiz, Luzaidekoa dugu. Gose edo egarri (hotza ere bai Sakana erdialdean) handia dela adierazteko erabiltzen dira. Ondorengo Etxarri Aranazko esaldia dugu: *Goiz guzie niok gosiek garbitzen, bazkal garaiye noiz allaatuko!* (Goiz guztian nagok goseak garbitzen, bazkal garaia noiz ailegatuko!). Mezkirizko Perpetua Saraguetaren eskuidatzietan horrela dator jasoa ondorengo esaldia: *Egarriak egon, Goseak, egarriak, buluxiak daudenendako? (...biluzik daudenendako!).* Eta azken haxe, Luzaideko hiztegiak dakar: *Égun gúzjan lánjan aizána nuxu éta wái gósjak amarrátja nuxu.* (Egun guztian lanean ari izana nauzu eta orain goseak amorratua nauzu.) OEHN ere horrela: (Goseak hil (V, L, AN-5vill, BN, S) (...)) *Morirse de hambre, tener mucha hambre, desfallecer.* (...)

DUELA 25 URTE...



Institututik Iparraldera

Altsasuko Mikel Donea institutuko 25 ikasle Iparraldera asteburu pasa joan ziren. Maskarada bat ikusi eta, bide batez, Iparraldeko eta Zuberoako ohi-turak eta bizimodua ezagutzea zen helburua. Donibane Garazi ezagutu ondoren Zuberoarantz jo zuten. Larrainek trinketean Xiberuko Botza irratiaren aldeko musika jaialdian izan ziren larunbat gauean. Igandean, berriz, Garindainen maskarada ikusi zuten. Ikasleei iruditu zitzaizkien euskara gutxi hitz egiten zela.



Etxarri Aranazko herrigunetik ekialdera, hegoaldera eta mendebaldera egingen lukete bideak. UDALA

Udala herriko bide sarerako ekarpen eske

Herri barruan oinezkoendako eta bizikletendako bide seguruak sortu nahi ditu udalak. Hiru adar proposatu ditu plaza, Donejakue bidea eta Sakanako Bizikleta Bidea Sarea oinarri hartuta

ETXARRI ARANATZ

Udalak bide sare bat sortu nahi du herri barruan oinezkoak eta txirindulariak seguru ibil daitezzen. Alde Zaharra futbol zelaia, Zugarrreta eta Aldapasororekin lotu nahi ditu udalak. Proposamenak ontzeko kontuan izan ditu plaza oinezkoendako dela eta herria zeharkatzen duen Donejakue bidea eta Sakanako Bizikleta Bide Sarea.

Proposamenen informazio panelak apirilaren 7tik 10era liburuetan ikusgai izanen dira eta apirilaren 11n eta 12an, eguraldiaren arabera, plazan edo estalopean. Panel horietan proposatutakoaren mapa eta egin beha-

rreko lanen zehaztapenak egonena dira. Ibilbide proposamen horien inguruko etxarriarren ekarpenak jaso nahi ditu udalak: adostasuna, desadostasuna, aldaketak, hobekuntza posibleak eta bestelako bideak diseinatzeko proposamenak.

HIRU PROPOSAMENAK

Futbol zelaiko bidea

Eragatik eskolarantz jotzen du Donejakue bideak, udaletxeraino joan eta Ugalde eta Sagarmineta kaleetatik eta Kanpozelaitik pasatzeko. Aurki eskola eta herriaren arteko bizikletendako eta oinezkoendako hiru

ke, gainera, bi aldeetan segurtasun baranda jartzea aurreikusi da.

Zugarretako bidea

Seinaleztapenaren bidez plazaren oinezkoen eta bizikleten erabilera partekatua zehaztuko litzateke. Plazatik 2,2 metro zabaleko bizikletendako bi norabideko bidegorri batek Larrañeta kalea zeharkatuko luke autobus geltoki ondoko zebra bidera. Burundabide kalea zeharkatu ondoren, Lurloi eta Arkuetabide kaleak hartuko litzuzke Zugarretako ermitaraino iristeko.

Azken bi kale horiek ziklo-kaleak lirateke. Hau da, bizikletek lehentasuna izanen lukete, nahiz eta motordun ibilgailuekin elkarbizi 30 km orduko abiaduran. Ez da obrarik behar. Zebra bidearen ondoan bizikletak apartatzeko gune bat izanen da.

Aldapasoroko bidea

Larreñondo kalean, autokarabanen gunearen ondotik abiatuko litzateke bide hori, Sakanako bizikleta bide sarearekin bat egiten duen tokian. Malkorramendi kalearen iparraldean dagoen Kattubidetik pasa eta Malkorramendi kalera aterako da, handik asfaltatu gabeko bideetik Aldapasoro auzora joateko.

Kattubide bizikletendako bi norabideko zoru berrituko bidegorria litzateke. Malkorramendin lurra trinko eta bidearen bi aldeetan segurtasun barandak leudeke. Aldapasorora arteko bidea ere txukunduko litzateke.

UDALAK BIDE SARE BAT NAHI DU HERRIAN OINEZKOAK ETA TXIRRINDULARIAK SEGURU IBILTZEKO

metroko bidegorria egingen du. Proposamena da bide hori eskolatik futbol zelairaino luzatzea.

Eskolako aparkaleku paretik abiatuko litzateke, bidearen ezkerretatik ikastolaraino. Hango zebra bidean eskuin aldera pasako litzateke, futbol zelaiko aldagelairaino iristeko. Hiru metroko zabalerrabide mistoa litzateke. Bidea bertikalean eta horizontalean seinaleztatu eta 15 km orduko abiadura muga luke. Bide hori egiteko dagoen zoladura berrituko litzate-

kaxeta
LIBURUDENDA

Etxeko txikiarendako liburu politenak!

MUNDU
lanim

KOLOREZ
kalare

www.kaxeta.net

628 542 519 | 948 460 477

PORTUKO

ofidela

Dastatu gure Goxua!

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988



Txema Ramirez de la Piscina eta Xanti Arrieta Martinez erakusketan.

"Inpotentziatik horrelako irudiak egunero ikusten ditugu"

XANTI ARRIETA ETA TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA SORTZAILEA ETA IDAZLEA lortia kultur gunean dagoen 'Gernikak. Begiradak' erakusketako egileak gerra dute hizpide ikusgai dauden sormen lanetan

A.A.I. ALTSASU

Saminetik sormenera salto egin dute. Gerra komunikabideetan ikusteak sortzen duen ezinegona izan dute abiapuntu hausnarke-ta plaza bat eskaintzeko. Gerren jatorriaz edo haien zergatiaz hausnartzeko gonbidapena egin dute sormen lanen bidez.

Erakusketaren izenburua irakurri-ta bost hitz datozkit burura: Gernika bera, arbola, gerra, bonbardaketa eta Picasso.

Xanti. Picassoren obra nire inguruan egon da beti, nahiz eta

ez erabili. Duela bost urte, horretaz pentsatzen eta probak egiten hasi nintzen. Ukrainako gerra sortu zen eta, bat-batean, pentsatu nuen lana horren ingurukoa izan behar zuela. Telebistan irudiak ikusten nituen. Ba-

"GERRAK ERAGINDAKO EZINEGONETIK TIRAKA HASI NINTZEN OBRAK PENTSATZEN"

rruan ezinegona sortu zitzaidan. Eta hari horretatik tiraka hasi nintzen obrak pentsatzen, zirriborroak egiten eta forma ematen. *Gernika* koadroko figurak hartu eta beste testuinguru batean eta testu batekin jarri ditut.

Ezinegon hori nola gorpuztu da?

X. Figurak islatu nituen eta kolaboratzaileei beraien gogoetak idazteko eskatu nien. Obrak egitean segituan ohartu nintzen hitzak behar nituela. Beti entzun dugu irudi batek hamaika hitzek baino gehiago balio duela, baina

nik pentsatu nuen irudiak, hitzak eta argazkiak jartzea. Testuinguru horretan nik Picassoren figurak erabili ditut. Baina hori beti argazki eta testu baten onarriarekin erakusten da.

Zer obra mota jarri duzu?

X. Txikitatik margotzen dut. Ondoren eskulturarekin hasi nintzen, horretarako bidea zeramika izan zen. Margoa eta eskultura zeramika teknikak dezente kontrolatzen ditut. Beste teknika batzuk nire bidean sartzen joan ziren: argazkia, egurra eta burdina. Kamikaze sartzen naiz. Bidea nahikoa luzea da, eta nahiko kontrolatzen ditut. **Ezinegon bakoitzerako teknika nola aukeratu zenuen?**

X. Obra ikusten dut eta zirriborroetan irudiak lantzen hasten naiz. Ez dakit obrek hitz egiten duten, baina nik entzuten ditut. **Barneko sen horrek eramaten zaitu adierazpide bat edo bestea aukeratzera?**

X. Inpotentzia hori ateratzea beharra izan da. Ez dakit atera dudana ala ez. Inpotentziatik horrelako irudiak egunero ikusten ditugu.

Sortutakoak testuz lagunduta egon behar zuten.

X. Ideia oso ona izan da. Eta hori egiteko izan dudana laguna primerakoa da. Zein kolaboratzaile pentsatu eta haiek baiezkkoa ematea zorte ona izan da.

Testu idazleak nola aukeratu zenuen?

Txema. Hasierako planteamendua zen: guk ezin dugu gerrek sortzen diguten ezinegon edo inpotentzia horretan geratu. Ezin gara nolabait geldirik geratu. Irizpide batzuk garbi zeuden: euskal kulturaren baitan esanguratsuak diren pertsonak eta, ahal dela, genero, lurraldetasun eta beste ikuspuntuak kontuan hartzea. Horren ondorioz etorri dira: Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Kirmen Uribe, Castillo Suarez, Eñaut Elorrieta, Maite Aristegi, Patxi Ibarzabal, Martxelo Otamendi eta ni neu. Xantik gogoeta labur bat eskatu zuen. Bakoitzari irudi bat eman zitzaigun, eta irudi horren inguruan gogoeta egin

"EZINEGON HORRI ATERABIDE POSITIBOA EMAN BEHAR DIOGU, BESTELA GUREAK EGIN DU"

genuen. Xantik testu horiek guztiak txertatu ditu obraren baitan.

Zer iritzi emaitzaz?

Tx. Ezin hobea da. Eta pasa garen toki guztietatik jaso dugun inpresio hori da. Batzuk igual harritu egin dira, kezkatu ere bai. Izan ere, hau ez da erakusketak eroso bat. Gogoetarako bide ematen duen erakusketa bat da. Eta gogoetarako pizgai-lua ezinegona da. Egoera nahasi honetan, ezinbestean, gure ezinegon horri aterabide positiboa eman behar diogu, beste-la gureak egin du.

Gerrari buruzko erakusketa bat Europa militaritzeko bidean dagoen.

Tx. Hori da. Gainera zein modu akritikoan onartzen ari garen defentsa, defentsa eta defentsa behar dugula. Torlojuak egitea eta granadak egitea ez da gauza bera inondik ere. Orbeak armak egiten zituen eta gaur egun bizikletak egiten ditu. Baina orain badirudi alderantzizko bidea egin nahi dutela batzuek. Eta hori ezin dugu onartu. Gogoeta zintzoa eta sendoa egin behar dela gai horren inguruan.

Testuak obrari eta obrak testuari zer ekarpen egiten diote?

Tx. Oso ongi uztartzen dira. Mundu guztiak esaten du irudiak eta testuak ederki batzen direla.

Sinbiosiarekin pozik?

X. Oso konforme. Tailerlean hasten zarenean ez duzu obra oro har ikusten. Erakusketan konturatu naiz asmatu dugula.

Erakusketarekin batera egitaraua prestatu duzue. Zergatik?

Tx. Gasteizen bezala, ekitaldi sorta bat ere beharrezko ikusten genuen. Altsasun hiru hitzaldi daude, memoriaren eta desinformazioaren inguruan.

Sakandarrak zergatik pasatu behar-lukete lortia kultur gunetik?

Tx. Komeni da bista apur bat zabaltzea. Horregatik Gernikak, pluralean. Guretako Gernika izugarritzko garrantzia duen herria da. Gernikaz aparte, Historian badira askoz ere bonbardaketa gordinagoa jasan duten herriak. Horien erreferentzia ere badago (liburuxka batean zerrendatuta daude). Horregatik, inportantea da gogoeta egitea, ez bakarrik Gernikakoaz, baizik eta beste hainbat herritan izandako sarraskiez. Gazakoa guginaino iristen den garai hau oso testuinguru aproposa da horretaz hitz egiteko.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.
Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 4

EUSKARAZ
ETXARRI ARANATZ Irakurketa dramatizatua.
Bidaia ezerezero irakurketa dramatizatua Ventura Ruiz, Patxi Larrea, Asier Andueza eta Ana Maestrojaunen dramaturgiarekin eta Izaskun Lasarte eta Angel Garcia Moneo antzezleekin, eta Ana Maestrojuaneke zuzenduta. Literarte III. Jaialdiaren barruan.
18:00etan, liburutegian.

EUSKARAZ
LAKUNTZA Ipuin kontakizuna.
Ni neu galtzeta eta Xaxardi ipuinen kontaketa Joana Ziganda eta Iker Uriberen eskutik. 3 urte baino gehiagoko haurrendako.
18:30ean, liburutegian.

ALTSASU Gazte agenda.
Aholkularitza emozionala Kaeruren eskutik.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

EUSKARAZ
ARBIZU Liburu aurkezpena.
Luis Lizarraga kapitaina 1473-1521. Nafarroako askatasunaren indarra Sakanan Juan Luis Larraza Lakuntzaren bigarren eleberriaren



OSTIRALA 4

LAKUNTZA Izena ematea.
Euskaraldian izena emateko aukera. Aiaupenanik antolatuta.
18:30etatik 20:00etara, plazan.

aurkezpena: Luis Lizarraga kapitainaren bizitzan eta istorioan oinarritzen da lana; gertaera historikoetan oinarritutako fikzioa da.
18:30ean, elkarteetan.

ALTSASU Liburu aurkezpena.
Diario de una estética con espíritu de superación Gixane Santano Cerdanen liburuaren aurkezpena: norberaren esentziarekin konektatzeko gida bat da, edertasuna barrutik sortzen eta emaitzak kanpoan lortuz. Altsasuko Liburutegiak Liburuaren Egunaren harira antolatuta.
18:30ean, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 5

ALTSASU Txirrindularitza irteera.
Barranka Txirrindularitza Talde mistoaren irteera: Langarikara 56 kilometroko ibilbidea.
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Gimnasia erritmikoa.
Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketaren bigarren fasea.
09:00etatik aurrera, Zelandi kiroldegian.

LAKUNTZA Jardunaldia.
Landa eskolaren VIII. jardunaldia, Lakuntzako Herri Eskolak antolatuta.
9:45etik 14:00etara, kultur etxean.

BAKAIKU Yoga eta masajea.
Autozaintza: yoga eta masajea saioa, Sakanako Mankomunitatearen



UTZITAKOIA

ALTSASU Gernikak. Begiradak Xanti Arrieta artista bergararraren erakusketa polifonikoa. Picassoren obratik abiatuta, gerren zentzugabekeriak egindako gogoeta kolektiboa.
Apirilaren 27ra arte. Astelehenerdik ostiralera 17:30etik 19:45era, larunbatetan 19:00etatik 20:00etara eta igandetan 17:30ean 20:00etan. lortia kultur guneko erakusketa aretoan.



UTZITAKOIA

IRURTZUN Inmatricular Javier Etayo Larraizar 'Tasio' marrazkilari eta umoregile grafikoaren erakusketa.
Apirilaren 4ra arte. Liburutegian.

Emakumeendako Kirol Topaketen barruan.
10:30ean 13:00etan, eskolan.

22:30 Kontzertuak, Biltokin:
Against You, Irati 58 eta Muga Zero lakuntzarrak.

LAKUNTZA Biltoki eguna.
Biltoki eguna, Biltokiko gazteek antolatuta.
12:00-14:00 Poteo, kalba joko eta auzatea.
14:00 Bazkaria (12 euro).
18:00 Karro poteoa.

ETXARRI ARANATZ Azoka.
Lehen Elkartasun Azoka: salmenta postuak, jolas kooperatiboa, herriko ikastetxeek prestatutako tailerrak eta janaria. Jasotakoa Palestinako herriari bideratuko diote. Herriko hainbat eragileek antolatuta.
17:00etatik 20:00etara, plazan.

BAZKIDE ZOZKETA
Martxoko saridunak

Larrañeta elkarte
(Etxarri Aranatz)

Guillermo Goikoetxea Zelaia
(Urdiain)

Aitziber Berastegi Cartagena
(Lakuntza)

Francis Arakama Zubeltzu
(Urdiain)

Erviti aluminio PVC

Akaborra industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona
eta prezio ezin hobea

ALTSASU Antzerkia.

WAR BABY Yllana konpainiaren antzezlaren emanaldia: Armadaren zentro batean soldadu talde despistatu baten entrenamendua jasotzen da, herrialdeko buruzagi berriak sortutako gerra zentzugabe batean borrokatzeko. Pertsonaia dibertigarriak eta gerraren inguruko egoera zentzugabeak dira oinarri. Sarrerak: 12 euro (gubxi gelditzen dira).
19:30ean, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Tekno gaua.

Tekno gaua: Euskal Preso Politikoei elkartasuna adierazteagatik jarritako isunarekin elkartasun eguna; Ivangoove, Zigix kale tekno eta Aroniko DJ-ekin. Sarrerak: 4 euro.
22:00etan, Maisuenea gaztetxean.

IGANDEA 6**ALTSASU Txirrindularitza irteera.**

Barranka Txirrindularitza BTT taldearen irteera: Arnoko labirintora 54 kilometroko ibilbidea.
08:30ean, Zumalakarregi plazatik.

ALTSASU Txirrindularitza.

Kadeteen mailako XXXVII. Altsasu Trofeoa. Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta. 51 kilometro.
11:00etan, Foru plazatik.

ALTSASU Azoka.

Bigarren eskuko Elkartasun Azoka: musika, jolasak, txapak egiteko tailerra, jakiak, Elkarri Laguntza Elkartearen txokoa, erosteko mahaiak.
11:00etatik 13:30era, lortia zabalgunean (eguraldi txarrekin Burunda frontoian).

ETXARRI ARANATZ Bertso saioa.

Bertso saioa: Amets Arzallus Antia, Eneritz Artetxe Eizagirre, Ekain Alegre Gil, Unai Iturriaga Zugaza-Artaza eta Nerea Ibarzabal Salegi bertsolariekin, eta Saats Karasatorre Martinez gai jartzailearekin. Sarrerak: 6 euro.
17:00etan, kultur etxean.

OLATZAGUTIA Pailazoak.

Ostirala iritsi da! Porrotx eta Marimototx pailazoan ikuskizuna: Eskolan egun berezia da Txapas irakaslearen azken laneguna baita. Harekin bizitutako eta ikasitako guztiak ospatuko dituzte. Sarrerak: 5 euro.
17:00etan, Erburua kiroledegian.

IRURTZUN Solasaldia.

Elizaren inmatriculazioei buruzko Nafarroako Ondarearen Defentsaren Plataformaren hitzaldia.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

ODS 10 Jolasa: Desberdintasunetan berreztea.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Antzerkia.

Inmatriculaciones. Oh my God! Amico antzerki konpainiaren elizaren inmatriculazioei buruzko antzezlaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 7**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 8**LAKUNTZA Kontzertua.**

San Saastin musika eskolako piano ikasleen audizioak.
17:15ean, kultur etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

Gerra Zibileko deshobiratzeek kontatzen dutena: lekukotzak, gorpuak eta objektuak hitzaldia, Aitzpea Leizaola antropologoa eta EHUko irakaslearen eskutik, Gernikak. Begiradak erakusketaren harira.
18:00etatik, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 10

EUSKARAZ
LAKUNTZA Filmaren emanaldia.

ZINEMA**ALTSASU**

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

EUSKARAZ

Kaixo Frida
Igandea 6 17:00

Nosotros
Igandea 6 19:30
Astelehena 7 19:00

Tierra de nadie
Osteguna 10 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Una ballena
Igandea 6 17:00
Igandea 6 19:30

Todos lo sabían
Osteguna 10 19:00

Lego pelikularen emanaldia, euskaraz, 5 urteik aurrerako haurrentako.
18:30ean, liburutegian.

EUSKARAZ**ETXARRI ARANATZ Tailerra.**

Zientzia eta teknologia tailerrak: Zentzumenei buruzko tailerra.
18:30ean, liburutegian.

OSTIRALA 11**BAKAIKU Udaberriko festak.**

15:00 Gazte bazkaria.
19:00 Festen hasierako etxajua.
20:00 Tortilla patata txapelketa. Auzatea trikitalariek giroturik.
20:25 Kapitainen aukeraketa.
23:00 Elektrokela elektrotzaranga.

EUSKARAZ**LAKUNTZA Tailerra.**

Irakurkide Txakurrekin irakurketa sustatzeko tailerraren saioa. Plaza mugatuak (izena eman liburutegian).

17:00etan, liburutegian.

ALTSASU Gazte agenda.

Biok bat izan gaitzen bat! Arrazismoa landuko den hitzaldia Cheick Mbackerekkin.
18:00etatik 19:30era, lortia kultur gunean.

EUSKARAZ**IRURTZUN Bertso saioa.**

Oinak buruan eskolarteko bertso txapelketaren finala; Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak elkarrekin antolatuta, gaztetxoei jendaurrean bat-batean jarduteko aukera.
18:30ean, Pikuxar elkartean.

EUSKARAZ**IRURTZUN Filmaren aurkezpena.**

Ombuaren itzala Pedro Mari Otaño bertsolariaren bizitzaren inguruko Patxi Bisquertek egindako filmaren aurkezpena.
19:00etan, kultur etxean.

EUSKARAZ**ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.**

Joxe Aldasoro bakarrizketalari etxarriarraren *Batrakomiomakia* bakarrizketa saioaren emanaldia, Irrizikloa programaren barruan. Sarrerak: 6 euro.
19:00etan, kultur etxean.

OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Olatzagutiko irakurle taldea: Ian McEwan idazlearen *La ley del menor* liburua.
19:00etan, liburutegian.

ITURMENDI Film dokumentala.





Exopia Mugarik ez errefuxiatuen inguruko film dokumentalaren emanaldia. Aitzkozar elkarteak antolatuta.
19:30ean, udaletxearen ganbaran.


**APIRILAK 7-11**

- 10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15** Prentsaren azalak
- 10:20** Albisteak eta kirolak
- 10:30** Hizketan
- 11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
- 14:00** Errepikapena

Hizketan

- Apirilak 7** Elkartasun azoka Altsasun eta 'Ombuaren itzala'
- Apirilak 8** 'Gernikak. Begiradak' erakusketa
- Apirilak 9** Bertso saioa (*Bertsoa.eus*)
- Apirilak 10** LH Robotikako ikasleak
- Apirilak 11** Agenda berezia

EGURALDIA ASTEBURUAN**Ostirala, 4****Larunbata, 5****Igandea, 6****Astelehena, 7**



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Olatzin etxe adosatua salgai: 70m², sukaldea, komuna, egongela eta hiru logela ditu. Informazio gehiago nahi baduzu, deitu 683 346 308 telefonora.

GALDUTAKOAK

Altsasun erlojuu galdua: Uhal urdina duen erloju bat galdu dut. Aurkitzen baduzu, mesedez, deitu 634 437 155

IKASTAROK

Mendi Campusa Uharte Arakilen: Apirilaren 22tik 25era, 8 - 16 urte bitartekoentzat. Informazioa eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

Altsasun Elkar zaintzen duten emakumeak egitasmoan izen ematea

zabalik: Egitasmo honen barruan jarduera fisikoak eta jarduera emozionalak egingen dira zaurgarritasun egoeran dauden Altsasuko emakumezkoen ongizatea hobetzeko. Informazio gehiago eta izen emateak 948 468 343 telefonon edo miraola@altsasu.net emailera idatziz.

Sakanako bertso eskolak: LH4tik DBH4ko gazteei zuzenduta Altsasu, Irurtzun eta Lakuntzan. Informazioa eta izen emateak www.bertsozale.eus/nafarroa_nafarroa.transmisioa@bertsozale.eus edota 948 143 747 telefonon.

OHARRAK

Minaberri itzulpen-bekaren II. Edizioa: Itzultzaile hasiberriei begira sortua da itzulpen-beka, eta bekaren hartzailea mentoretza baten bidez trerabatu

da itzulpen gintzan. Mentoretza CEDRO erakundearen laguntzaz egingo da. Informazio gehiago EIZIEn webgunean.

Autobusa Sakanatik Baionara: *Justizia euskararentzat* lelopean manifestazioa egingo da apirilaren 6an Baionan, autobusez joan nahi baduzu izena eman dezakezu zure herriko ohiko tokietan 15 euroren truke joateko. Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatuta.

Sakanako mintzaki taldeak: Zordin ostiralean 17:00etan liburutegian, Olatzin astelehenean 18:30ean Ogiberrin, Altsasun astelehenean 16:00etan Gautxorin, ostegunetan 20:00etan Lezean (Altsuko eskua) eta ostiralean 9:00etan Kaixon eta 10:00etan Zubezia elkartean, Etxarri Aranatzeko ostiralean 18:30ean Xapate-

ron, Arbizun asteartetan 16:00etan Aralar tabeman, Lakuntzan asteazkenean 18:15ean jubilatuen elkartean eta Irurtzunen asteartetan 18:00etan Iraxton eta ostiralean 9:45ean edota 19:00etan Pikuxarren.

JALGI HADI! dokumentalerako crowdfunding kanpaina abiatu du

AEK-Korrikak eta Mirokutana ekoiztetxeak: Euskara maite duen edonorentzat ari dira dokumentala egiten. Euskara bizirik ikusi nahi baduzu, egin klik <https://eu.goteo.org/project/jalgi-hadi-dokumentala> eta lagundu crowdfunding bitartez! Poltsiko guztietarako

moduko diru-ekarpenak egin daitezke, 20 eurotik hasita. Martxoaren 17tik apirilaren 25era bitartean eman dezakezu laguntza. Zure laguntzaz, hau posible izango da!

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

EMAKUME PREFERENTEA

22. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Burlades 2-1

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1	Altsasu	54
2	Gazte Berriak	45

HURRENGOA

KOPA

Kopa apirilaren 13an hasiko da

Altsasuk liga irabazi du

Emakumeen preferenteko liga bukatu da. Altsasu da txapelduna, partidarik galdu gabe.

GIZON ERREGIONALA

26. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - San Jorge 2-1

Etxarri Aranatz - Mendillorri 5-2

Lagun Artea - Aurrera 2-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Altsasu	74
3	Etxarri Aranatz	58
7	Lagun Artea	43

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 5, LARUNBATA

16:00 Berriozar - Altsasu (Berriozar)

16:00 Aurrera - Etxarri A. (Leitza)

16:30 Beti Onak B - Lagun A. (Atarrabia)

Altsasuk galdu gabe jarraitzen du

Altsasuk, liderrak, San Jorge irabazita, mesede handia egin zion Etxarri, orain sailkapenean Etxarri San Jorge bigarrenetik puntu batera jarri delako. Berriozarren kontra bide onean jarraitu nahi du liderrak.

Etxarrik bigarren postua puntu batera

Etxarri bigarren postuko borrokan dago sartuta eta Aurreraren kontra garaipenagatik borrokatzea du buruan.

Lagun Arteak Beti Onak B aurkari

Lagun Arteak goi postuetan sartzeko borrokan segitzeko Beti Onak-en kontrako partidatik hiru puntu ekarri beharko lituzke.

ARETO FUTBOLA

Xotak Orvina A liderra du aurkari

Hirugarren mailan, Aralar Mendik Kirol Sport liderrarekin galdu zuen. Talde uhartearra hamargarren da, eta larunbatean Ribera de Navarra du aurkari Tuteran, 16:00etan. Lehen maila autonomikoan Altsasuk eta Arbizuk lidergoa dute jokoan larunbatean Zelandin (ikus alboko artikulua). Emakumeen lehen senior mailako igoera fasean Xotak Orvina A liderraren kontra jokatuko du igandean, 12:00etan, Ezkaba kiroldegian.



Altsasu, Arbizu Kirol Taldea eta Aralar Mendi taldeak, Sakanako I. Areto Futboleko Kopan. UTZITAKOIA

Arbizu edo Altsasu, liderra Zelandik erabakiko du

ARETO FUTBOLA Lehen maila autonomikoko derbia hartuko du Zelandik larunbatean. Arbizu da liderra eta Altsasu bigarrena, bi puntuko aldearekin. Lidergoa dago jokoan, pike oso sanoarekin. "Garrantzitsuena da liga Sakanan geratuko dela" dio Altsasuk

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Areto futboleko lehen maila autonomikoan 24. jardunaldia jokatuko da asteburuan. Jardunaldi berezia da, larunbatean Zelandik Altsasuren eta Arbizu Kirol Taldearen arteko derbia hartuko duelako. Bi taldeak sailkapenaren gorenean daude: Arbizu liderra (55 puntu), eta Altsasu bigarrena (53 puntu). Beraz, ligako lidergoa dago jokoan Altsasun, derbia are bereziago egingo duena. Liga despeditzeko hiru jardunaldi falta dira, eta horietako batean atsedena hartzea dagokio Arbizuri. Hortaz, puri-purian dago guztia. "Altsasuk derbia irabaziko balu, lider jarririkoa litzateke eta gainontzeko

bi jardunaldietan berdinketa bat lortzearekin, liga irabaziko genuke. Beraz, asko dago jokoan" azaldu du Altsasu Kirol Elkarteko Goyo Rodriguez Marquez jokalaria.

Hasteko, emakumezkoen lehia

Altsasuk eta Arbizuk harreman oso ona dute. Elkarri laguntzen diote, eta elkarrekin eta Uharte Arakilgo Aralar Mendirekin batera antolatu zuten I. Sakanako Areto Futbol Txapelketa, irailaren 7an jokatu eta Altsasu Futsal taldeak irabazi zuena. Horregatik, zerbait berezia antolatzea pentsatu zuten, nolabaiteko areto futbol festa txikia. "Arbizuko Endika Mendinueta-

rekin hitz egin, eta derbia egun berezia izatea adostu genuen. Horrela, lehenik eta behin emakumezkoen kadete mailako Altsasu eta Arbizu taldeen arteko partida antolatu dugu, 16:30ean hasiko dena. Emakumezkoen areto futbola sustatu nahi dugu, gure taldeei ikusgarritasuna eman" azaldu du Goyok. Ondoren, 18:30ean, lehen maila autonomikoko Altsasuren eta Arbizuren arteko derbia hasiko da.

Arbizuk denboraldi ikaragarria darama, eta liderra da aspalditik. Altsasu ikusgarri ari da baita ere, bi puntura baitago. "Ongi entrenatzen ari gara, eta ilusionatuta gaude". Miguel Barrero da Altsasuko entrenatzailea,

garai batean Koxka taberna taldeko entrenatzailea izan zena, 2014an Koxkak IV. Areto Futboleko Kluben Arteko Estatuko Txapelketa irabazi zuenean edo 2015ean Koxka XIX. Europako klub arteko UEFA's Cup txapelketako txapeldunordea izan zenean, Errusiako Podvodnik taldearekin 6-3 galdu eta gero.

Bi taldeek lehia eta pike oso sanoa dute. "Jakina, guk irabaztea nahi dugu, baina galduz gero Arbizuk liga irabazteagatik poz-tuko ginateke. Liga Sakanan geratuko da, eta hori da garrantzitsuena" nabarmendu du Goyo Rodriguezek. "Derbiko 50 minutuetan dena emango dugu eta arerioak izango gara, baina hortik kanpo elkarren artean laguntzen garen taldeak gara, anaitutako klubak. Beraz, onenak irabaz dezala, baina, bereziki, zaletuei irabaz dezatela". Zaletuei Zelandira hurbiltzeko deia egin diote, areto futbol arratsalde polita pasatzera.

Giro ederra espero da

Altsasuk taberna txikia jarriko du Zelandin, bildutakoek zerbait hartzeko aukera izan dezaten. "Azkeneko partidetan jende asko etorri da Zelandira gu animatzera. Berriz ere areto futbolarekin ilusionatu da jendea, eta hori da nahi duguna. Garai batean jokatzen zen tabernen arteko torneotik ez genuen Altsasun areto futbolaz gozatzen, eta horri buelta eman diogu".

Derbian zer gerta, Arbizuk eta Altsasuk lehen liga autonomotik hirugarren mailara igotzea lortu dute. "Jendea animatu da, eta datorren urtean hirugarren mailakoa, autonomikoa eta emakumezkoena aterako ditugu. Jendea areto futbolarekin berriro ilusionatu izana sekulakoa da".

Maite Beregañak Etxauriko Krosa irabazi du, bigarrenez

ATLETISMOA Korrikalari uhartearra erraz gailendu zen. Ia 3 minutu atera zizkion Aurkene Aroca bigarrenari

M.B.G. SAKANA

Igandean 44. Etxauriko Krosa jokatuko zen, Etxauritik abiatuta portua igo eta Etxauriko Gainan edo begiratokian despeditzen den 7 km eta 433 m desnibelesko proba labur baino esplosiboa.

Korrikalariak %6,6 graduko aldapa konstanteari egin behar diote aurre, eta proba gogorra da, Nafarroako lasterketen egutegian beteteranoa eta preziatua.

Victor Bernedo iruindarra (27:49) eta Maite Beregaña uhar-

te arakildarra (35:44) izan ziren 167 korrikalariaren artean txapeldun handiak. Ivan Sobredo 'Triki' altsasuarrak lan ederra egin zuen baita ere. Top10ean sailkatu zen, zortzigarren (29:47). Jose Antonio Salgado beteterano altsasuarra 114. sailkatu zen (43:47) eta Iñigo Orella 120. (45:40).

Beregañak bigarrenez irabazi du Etxaurin. Normalean mendi lasterketetan aritzen da, baina Etxaurin aritzea oso gustuko du. "Dena" eman zuela eta "neka barratuta" iritsi zela aitortu zuen.



Beregaña, ezkerrean. PATXI CASCANTE



Ander Gurmino eta Asier Cruz hamazazpigarren sailkatu ziren, bosgarren kategorian zazpigarren.

Motorzaleen gozamena Olaztin

AUTOMOBILISMOA VI. Olaztiko Rallysprintak denetatik izan zuen: hasieran euria, gero haizea eta hotza. Asier Jaunsarasek eta Borja Erbitik irabazitako proban Javier Goikoetxea eta Aritz Elgarresta izan ziren lehen sakandarrak

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI Euria, haize fina eta hotza. Ez zen giro larunbatean Olaztin, baina hala ere automobilismo zale ugari bildu ziren Sakana Motorsportek antolatutako VI. Olaztiko Rallysprinta gertutik jarraitzera. 50 talde zeuden izena emanda, baina horietatik 40k hartu zuten irteera eta 32k lortu zuten lasterketa osatzea.

Olaztiko hirigunetik hasi, kale eta bidexkak zeharkatu eta Altamira igo eta jaitsita 5,95 km zituen zirkuituak, eta taldeek lau aldiz osatu behar zuten ibilbidea. Lehendabiziko pasa euripean jokatu zen, gero ateri zegoen baina haize finarekin, eta azkeneko biak lurra lehorra zegoela jokatu ziren. Beraz, egerra guztiei aurre egin behar izan zieten pilotu eta kopilotuek.

Txapeldunak Malerreka Motorsporteko Asier Jaunsaras eta

Borja Erbiti (Peugeot 205 Rallye) izan ziren, lau eremuak 16:03.356 minututan osatuta. 3 segundo atera zizkieten euren kide Gabriel Jimenez eta Ana Arrarasi (Renault Clio Sport, 16:07.067).

Sakandar onenak Sakana Motorsporteko Javier Goikoetxea pilotu olaztiarra eta Aritz Elgarresta izan ziren, egunerako propio alokatu zuten Ford Fiesta Rally 4 autoarekin (16:42.326). Sailkapen orokorrean edo *scratch*-ean seigarren izan ziren, Formula Libre kategoriakoak ez baitira kontatzen sailkapena egiterakoan, baina

**SAKANA
MOTORSPORT POZIK
DAGO PROBAK
IZANDAKO
JARRAIPENAREKIN**

Formula Librekoak kontuan hartuz gero, hamargarrenak. Euren mailan, bosgarren kategorian, bosgarrenak. Kontentuz zeuden, nahiz eta azken eremuan kapota zabaldu eta horrek denbora zer edo zer jaitsi. "Oso gustura ibili gara. Sakanako Saria lortu dugu, eta pozik" azaldu zuten helmugan.

Sakana Motorsport eskuderiako Alberto Villar eta Eneko Unanua (BMW E36) Formula Librean aritu ziren eta 21. denborarik onena egin zuten (17:26.263), euren kategorian bederatzigarrenak. Euren eskuderiako kide Ander Gurmino eta Asier Cruz (Renault Clio Sport) hamazazpigarren sailkatu ziren, bosgarren kategorian zazpigarrenak, eta, tamalez, Asier Juanezek eta Josu Olmosek (Renault Clio Sport) ezin izan zuten proba bukatu, bigarren pasan matxura izan eta gero.



Javier Goikoetxea eta Aritz Elgarresta lehen sakandarrak izan ziren. ELGOIBARMOTOR



Alberto Villar eta Eneko Unanua Formula Librean lehiatu ziren, BMW E36-arekin.



Herriko txokoetan eta portuan, toki guztietan bildu ziren jarraitzaileak.



Asistentzia gunea Olaztiko plazan egon zen. Sekulako giroa egon zen bertan.

Sentipenez jositako txapela

PILOTA Joseba Ezkurdiak eta Beñat Rezustak Binakako txapelketa jantzi eta ordu batzuetara zendu zen Martin Ezkurdia, Josebaren aita. Emozio handiko egunak bizi izan ditu Buruz Burukoaren atean dagoen aurrelari arbizuarrak

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

"Azkeneko urte eta erdia nireta-ko ez da erraza izan. Denetatik entzun behar izan dut, eta horri buelta emateak sekulako meritua du niretako. Banuen burua pixka bat atera eta berriz ere goi horretan egoteko gogo. Beraz, txapela lortzea, eta gainera, Beñatekin, sekulakoa litzateke. Latza" azaldu zuen Ezkurdiak Binakako finala jokatu aurreko elkarriketan. Eta latza izan zen.

Goraino beteta zegoen Nafarroa Arenan Iñaki Artolari eta Jon Mariezkurrenari 22-20 irabazterakoan, emozioak jota "hautsi" egin zen aurrelari arbizuarra. "Urte oso txarra daramagu etxean. Finalaren tentsioa bukatuta, guztia etorri zait burura eta hautsi egin naiz" aitortu zuen. "Inguruko guztiei, ezkutuan laguntzen dutenei", baina bereziki "aitari eta amari" eskaini zien txapela, guztiz hunkituta, "beraiek direlako benetako txapeldunak".

Emozioak borborka

Arbizuko omenaldira abiatu baino lehen Joseba Ezkurdiak geldialdia egin zuen ospitalean, bertan ingratuta zegoen aitari, Martin Ezkurdiari, txapela eskaintzeko. Ondoren, Rezustarekin batera ospatu zuten garaipena, Arbizun. Plaza beteta zegoela egin zieten ongietorria, suziri, bonbo, tronpeta eta guzti. Lore sorta eta aurrelariaren ondoren, Jone Igartuaren bertso ederra jaso zuten opari. "... eta orain jaso lanaren fruitu burura txapel kutuna / baina bakarrik ezin da eta alboan behar laguna / zaleon berotasuna, etxeko maitasuna / goza ezazue garaipena eta ez ahaztu garrantzitsuena / aurreko hori daukana dela benetako txapelduna". Segidan, Olatzea Hotelean bildu ziren Ezkurdiaren

eta Rezustaren senitartekoak eta lagunak, txapela elkarrekin ospatzera.

Tamalez, hurrengo egunean Martin Ezkurdiaren osasunak okerrera egin zuen, eta semeak binakako hirugarren txapela lortu eta 24 ordu baino gutxiagora zendu zen, gaixotasun larri eta luze baten ondorioz. Asteazkenean izan zen haren aldeko hileta jendetsua.

Egun gutxitan puntako emozioak bizi izan ditu Ezkurdiak. Gorenetik, txapela irabaztetik, behar baino egin du, aita despeditzeko tenoreraino. Joan baino lehen aitari txapela eskaini ahal izan zion, barrenean iltzatuta zuen helburua. Agur bereziagorik zaila izango da aurkitzen.

Sufritutako txapela

Ezkurdia-Rezustaren eta Artola-Mariezkurrenaren finala gogorra, borrokatua eta luzea izango zela aurreikusten zen, eta ez zen sorpresarik egon. Dirua ere parez pare atera zen. Har mailak goraino beteta, sekulako giroa zegoen Nafarroa Arenan. Lau pilotarien aldeko pankartak zeuden, eta bi kolore adierazgarri: urdina, Artolaren eta Mariezkurrenaren zaleena, eta gorria, Ezkurdia eta Rezustaren aldeko zapiarena. Lau finalistek bukaeraraino final hunkigarria izan zuten.

Gakoak

Finaleko gakoetako bat hasiera izan zen. Hasiera bikaina izan

EZKURDIAREN ETA REZUSTAREN BEHERALDIA IRAGARRI ZUTEN ASKOK, BAINA ONENEAN DAUDE"

zuten Ezkurdiak eta Rezustak, 7-1 aurreratu baitziren. Tarte horretan urdinak deserroso antza ibili ziren, nahiz eta tarteka Artolaren, eta, bereziki, Mariezkurrenaren zartakoak ikaragarriak izan, erreboteraino iritsi zirenak. Baina Rezustak urdinen bonbardaketari sendo eutsi zion, eta Ezkurdiak pilota txar asko kendu zizkion. Finalak aurrera egin ahala partida are gehiago gogortu zen. Bi bikoak tanto ikusgarriak egin zituzten, baina Ezkurdiak eta Rezustak hasieran ateratako aldea ongi kudeatu zuten eta une erabakigarrietan ofizioa, erregulartasuna eta fidagarritasuna erakutsi zuten. Gainera, defentsa lan ikaragarria egin zuten. Hori izan zen finaleko beste gakoetako bat, gorriek defentsan erakutsitako mastersa. Azken gakoak akatsak izan ziren. Urdinek akats gehiago egin zituzten, eta horrek ere kondemnatu zituen. Azken txanpan gora egin zuten urdinek, eta 21-20 gerturatu ziren. Artola txisparekin aritu zen tarte horretan. Baina lehertuta, eta hortzak estuturik, 22. tantoa lortu zuten Ezkurdiak eta Rezustak, zerura eraman zituena.

Bi bikoien sentsazioak

"Hasieratik atzetik egotea tokatu zaigu, eta horrek, azkenean, pisu handia izan du guretako, uneoro korrontearen kontra aritu garelako eta horrek neke handia sortzen duelako. Oso zaila da buelta ematea. Final eder bat izan da, pena txapela hain gertu edukita lortu ez izana" azaldu zuen Artolak. Mariezkurrenak "gorputzaldi txarra" geratu zitzaioala aitortu zuen. "Pena handia dut. Bukaerara arte borrokatu dugu, baina huts dezente egin ditut, eta hori izan da, bai-



Mariezkurrenak, Artolak, Rezustak eta Ezkurdiak final ikusgarria jokatu zuten leporaino beteta zegoen txapelketa irabazteko.



Ofizioa, fidagarritasuna eta defentsa ikaragarria erakutsi zuten txapeldunek. IÑAKI PORTO



Ezkurdiaren eta Rezustaren zaleek elkarrekin ospatu zuten festa. UTZITAKOIA



joen Nafarroa Arenan, eta txalo zaparrada jaso zuten. ASPEPELOTA.EUS

ta ere, finala galtzearen gakoe-tako bat". Txapeldunak zoriondu zituzten. "Goza dezatela; elkar ikusiko dugu beste batean".

Txapeldunek partidaren hasiera nabarmendu zuten. "Partidak ongi hasia oso garrantzitsua da; erritmoa jarriz aurretik hasi gara, eta gero errenta horri eustea lortu dugu. Pazientzia izan dugu" azaldu zuen Ezkurdiak. Rezusta jakitun zen urdinek jokoa atzean kargatuko zutela. "Momentu batzuetan sufritu dut, pilotean baino zenbait sake erantzuterako unean, baina garrantzitsua izan da halakoak moztu, beste takadaxo bat egin, eta hasieran lortutako errenta mantentzen joatea. Sufrizuta heldu gara 22ra" onartu zuen Bergarakoak. "Azken tanto hori nola edo ahala egitea genuen buruan" gaineratu zuen Ezkurdiak.

Pilotari onenaren saria

Txapelaz gain, Joseba Ezkurdiak Binakako Txapelketako pilotari onenaren EITB Saria jaso zuen. Sasoi betean aritu da, eta aldea ezarri du, atzeko koadroetan inperial aritu zen Rezustaren laguntzarekin.

Palmares ikusgarria

Elkarrekin irabazitako Binakako txapelari esker, hirugarrena biendako, Ezkurdiak (2018an Zabaletarekin eta 2020an Martijarekin) eta Rezusta (2017an Irribarriarekin eta 2019an Elezkanorekin) Binakako hiru txapel dituzten pilotarien klubean sartu dira. Palmares eder horri Ezkurdiak lau eta Erdiko hiru txapel gehitu behar dizkio, 2018an, 2019an eta 2022an lortutakoak.

Rezustak eta Ezkurdiak palmares hori izatea, Altuna eta Zabaleta handien garaikide izanda, asko esan nahi du. Izan ere, txapela honek aldarrikatzailetik asko du. Ezkurdiak elite mailan tokia duela erakutsi du, eta Rezustak atzelari onen artean bere tokia aldarrikatu du. Eta ez hori bakarrik, enpresa salbatu dute. Izan ere, Aspe izan da Binakako beste txapeldun handia, bi finalak, lehen mailakoa eta promesena, Salaberriarekin eta Gaskuerekin, irabazi duelako.

Ezkurdiaren eta Rezustaren beheraldia iragarri zuten askok, baina gazteak dira, gorenean daude, euren onenean, eta gerra ematen jarraitzeko prest.



Bakaikoak Buruz Buruko promesen bi txapela ditu, azkena 2023koa. BAIKO

Ezkurdiak eta Bakaikoa, lanera

Pilotan ez dago atseden hartzeko tarterik. Binakako finalaren oihartzunak oraindik itzali ez direnean martxan dago txapelketa garrantzitsua: Buruz Burukoa.

Txapelketa nagusia Basque Culinary Centerren aurkeztu zuten astelehenean. Jokin Altuna, Javier Zabala, Joseba Ezkurdiak, Aitor Elordi, Dario Gomez eta Peio Etxeberrria izango dira Asperen ordezkariak, eta Unai Laso, Iñaki Artola, Erik Jaka, Jon Ander Peña, Iker Larrazabal eta Beñat Senar Baikokoak. Aspen Peio Etxeberriak hartu du joan zen urtean Buruz Burukoan aritu zen Jose Javier Zabaletaren tokia.

Txapelketan ez dago aldaketarik. Asteburu honetan final zortzirenak jokatu dira, eta segidan final laurdenetako ligaxkaren txanda helduko da. Orduan sartuko dira lehen zerrendaburuak, Altuna, Zabala, Artola eta Laso. Onenak maiatzaren 17an eta 18an jokatu diren finalerdietarako sailkatuko dira, eta final handia ekainaren 1ean jokatu da, Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Astebete lehenago, maiatzaren 25ean, hirugarren eta laugarren postuetako finala erabakiko da, Donostiako Atano III. ean.

Egungo txapelduna, Jokin Altuna, bere laugarren txapela lortzen saiatuko da. "Sasoiko nago, eta ondo ditut eskuak. Txapelketa ona eta gogorra izango da. Bolada gogorretan burua hotz izan beharko da, eta garai onak ahalik eta gehien aprobetxatu".

Joseba Ezkurdiak Iker Larrazabal izango du aurkari gaur, ostirala, 22:15ean, Azkoitian. Material aukeraketa asteartean egitekoa zen, baina Ezkurdiaren aitaren heriotzarengatik partidaren egunean bertan, ostiralean egingo da. Ezkurdiak ez da Buruz Buruko bere onenean iritsi, baina nahiz eta entrenatzeko tarterik ez izan, "ahalik eta lan onena egiteko ilusioa" duela nabarmendu zuen finalaren aurreko elkarrizketan. Buruz Buruko txapela da falta duen bakarra, 2022an finalera iritsi zen, baina Unai Lasoren kontra galdu egin zuen.

Joanes Bakaikoa, B Serietako atzerakotuan

Txapelketa nagusiarekin batera gaur ere martxan jarriko da B Serietako Buruz Burukoa, Azkoitian. Baitokik Joanes Bakaikoa etxarriarra, Alberdi II.a, Eskiroz, Zubizarreta III.a, Lizeaga, eta Agirre. Eibarko promotoretik, aldiz, Salaberria, Egiguren V, Exposito, Murua, Aldabe eta De la Fuente pilotariak lehiatuko dira zilarrezko Buruz Burukoan. Final laurdenetako ligaxkan sartuko da lehen Joanes Bakaikoa, apirilaren 11n, Gasteizko Ogetan, zerrendaburu baita. Bere arerioa Expositok eta Lizeagak larunbatean Bilbon jokatu duten final zortzirenetako kanporaketatik aterako da. Joanes Bakaikoak buruz buruko promesen bi txapela ditu, 2018koa eta 2023koa. "Ilusio handiarekin nago, txapelketa polita egiteko gogotsu. Buruz Buruko oso gogorra da; badakit zaila izango dudala edozeinen kontra arituta ere, baina nirea ematen saiatuko naiz".



Ezkurdiak, anai-arrebekin. Ilobak irribarre handiarekin hartu zuen osaba.




Pilotari onenaren izendapena jaso zuen Ezkurdiak. ASPEPELOTA.EUS

LABURREAN

Luca Martinez, lehen garaipena juniorretan

Sakanan junior mailako talderik atera ez denez, Tolosa Danenarekin debutatu du Luca Martinezek. Igandean juniorretako lehen garaipena lortu zuen laktuntzarrak, Lizarrako Clinica Dental Rio Ega Trofeoa (83 km, 2:02:02), Hector Fernandezi (Alimco) segundo bat atera zion. Bere taldekide Ekain Imaz altsasuarra 18. sailkatu zen.

Ekai Erdozia, Zestoako podiumean

Larunbatean kadeteen Zestoako XII. Gurutzeaga Saria jokatu zen, eta bertan txirrindulari sakandarrak lehiatu ziren. Top 10ean, Xabier Curiel (Quesos Albeniz) zazpigarren eta Urko Oiarbide (Sakana Group-Alea) zortzigarren sailkatu ziren, baina Ekai Erdozia (Sakana) izan zen podiumera igo zena, mendiko txapelketa irabazi zuelako.

Iker Gomez, Gorlako Igoeran bosgarren

Bergarako afizionatuen L. Gorlako Igoeran (114,3 km) Finisher taldeak, tartean Iker Gomez altsasuarrak, lan handia egin zuen tropeletik tira eta ihes egindakoak harrapatzeko. Iker Gomez bosgarren sailkatu zen, Mikel Uncilla (Rural Kutxa-Alea) 28., Aimar Tadeo (Euskadi Fundazioa) 52. eta Iker Agudelo (Barranka T.T.) 133.

Sakandarrak oso txukun Herri Kirol Jokoetan

HERRI KIROLAK Etxarri Aranazko Nafarroako Herri Kirol Jokoen hirugarren jardunaldia eta gero, buruan jarraitzen dute Andra Mari eta Iñigo Aritzako taldeek. Igandean laugarren jardunaldia jokatu da Lekunberrin, eta finala apirilaren 13an, Altsasun

Maidier Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Igandean XXXVIII. Nafarroako Herri Kirol Jokoetako hirugarren jardunaldia jokatu zen Etxarri Aranatzen. Sakanako Andra Mari eta Iñigo Aritzako ikastole-tako taldeez gain, Antsoain, Arantza, Araxes, Basaburua, Labiaga ikastola (Bera), Berriozar, Igantzi, Joakin Lizarraga, Malkaitz eta Paz de Ziganda ikastole-tako taldeak lehiatu ziren, kimuen, haurren eta kade-teen mailan, herri kirol proba konbinatuetan eta sokatiran.

Euskalerrinari pilotalekua txiki geratu zen. Giroa, emozio askokoa, herri kirolari gazteek dena ematen dutelako.



Andra Mariko sokatira taldeetako bat, irribarrez, proba bukatuta.

Iker Mintegi eta Igor Arrieta Itzulian lehiatuko dira

TXIRRINDULARITZA Astelehenean hasiko den proban euren liderrak laguntzeaz gain, nabarmentzen saiatuko dira

M.B.G. SAKANA Apirilaren 7tik 12ra jokatu da Euskal Herriko txirrindularitza probarik garrantzitsuena: Itzulia. Bertan parte hartuko dute Igor Arrieta Lizarraga uharte arakildarrak (UAE Emirates) eta Iker Mintegi Claver altsasuarrak (Euskaltel Euskadi). Aurtengoa Arrietaren laugarren Itzulia izango da, eta Mintegiren bigarrena. Italiatik bueltan, Itzuliaz gain larunbatean Lizarran jokatu den Indurain Sari Nagusia prestatzen ari da Igor Arrieta. Iker Mintegi egunotan Frantzia aldean aritu da, besteak beste Paris Camembert klasikoan parte hartuz.

Azanza eta Urtasun, gogotsu Iker Mintegik Mikel Bizkarra, Jon Aberasturi, Ander Ganzabal, Xabier Isasa eta Txomin Juaristi izango ditu taldekide, Jor-


ge Azanzaren eta Pablo Urtasunen esanetara. Jorge Azanza kirol zuzendariaren ustez, talde lehiakorra darama Euskaltel-Euskadik Itzulira, "%100 euskal herritarra, harrobikoa eta lehiakorra. Talde ahalik eta orekatuena osatu dugu. Gaztetasuna eta esperientzia uztartzen dituzte taldeak. Bizkarra izango da taldeburua, esprintetarako Aberasturi daukagu, Mintegi eta Isasa ihesaldietan sartzeko aproposak dira, eta gainontzekoek asko lagunduko dute Taldea oso motibatuta dago gure zaleen babesa, marea laranjarena, izango baitugu. Daukagun guztia emango dugu" ziurtatu du altsasuarrak. Euskaltelek zaleen artean zabalduko duen kamiseta laranja aurkeztu du, "Gora ta gora beti!" leloduna, Euskal Herriko errepideetan ikusi nahi dutena.



Jorge Azanza eta Pablo Urtasun zuzendariak aurkeztu zuten kamiseta. EUSKALTEL

Igor Arrietaren podium italiarra

Igor Arrieta hirugarren sailkatu zen Italiako 40. Settimana Coppi e Bartalin. Bost etapako lasterketa Ben Tulettek (Visma) irabazi zuen, Mark Donovani (Q36.5) 18 segundo eta Igor Arrietari (UAE Emirates) 23 segundo aterata. Arrieta bigarren izan zen laugarren etapan, eta sailkapen orokorreko hirugarren postuan kokatu zen. Txirrindulari gazteenaren saria lortu zuen.



Talde sakandarren maila ona aipatzekoa da. Hiru jardunaldi jokatu, kimuen mailako proba konbinatua hogei talderen artean Andra Mari 3 taldea doa sailkapeneko buruan, Arantzaren eta Berriozar A taldeen aurretik. Andra Mari 2 bosgarren da, Iñigo Aritzako 2 seigarren, Iñigo Aritzako 1 hamahirugarren eta Andra Mari 1 hamazazpigarren. Haurren mailan Igantzi da liderra. Iñigo Aritzako hirugarren da, eta Andra Mari 3 laugarren, finalera sailkatzeko postuetan, sailkapeneko lehen lau taldeek jokatu dutelako Altsasuko finala. Andra Mari 1 zazpigarren da, eta Andra Mari 2 bederatzigarren. Kadete mailako konbinatua Araxes da lehena, Basaburua bigarren, eta Andra Mari hirugarren.

Sokatiran baita ere txukun dabilta gure taldeak. Nafarroako Herri Kirol Federazioak ez du sokatirako sailkapenik egin; apirilaren 6an Lekunberrin jokatu den laugarren jardunaldian jakingo da zein talde sailkatuko diren apirilaren 13an Altsasun jokatu diren final handirako.

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Joxe Aldasoro etxarriarrarena izanen da Etxarri Aranazko Udalak antolatutako Irrizikloa zikloaren hirugarren eta azken bakarrizketa, apirilaren 11n, ostirala, 19:00etan, herriko kultur etxean. Sarrerak 6 eurotan eros daitezke udalaren webgunean. Munduaren egoeraren inguruko bakarrizketa aurkeztuko du umoregile etxarriarrak: *Batrakomiomakia*.

Bakarrizketa saio berria, ezta?

Bai. Duela pare bat urte egin nuen aurrekoa Etxarri Aranatzan eta beste nonbaiten, eta kontuan hartuta nola dagoen mundua sortu dut; zoro batek agintzen du, beste batek ukraniarrek gerrara bidaltzen ditu... *Batrakomiomakia* ereserki homeriko bat da non kontatzen den saguen eta igelen arteko gerra bat. Pixka bat gerraren epikari egiten zaion kritika bat egiten da.

Nola sortu zenuen?

Asmatu nuenean oraindik ez zegoen, beno, bai, mundua hankaz gora zegoen, baina oraindik ez zegoen hain gordina egoera. Azken astetan gerra hotsak zabaldu dira, kit ospetsua delakoa, Espainian aurrekontuekin jolasean berrarmatzen horregatik, Gazan txantxa gutxi egia esan...

Zetorrena aurreikusi zenuen?

Bai. Abenduan ere beste bakarrizketa batean aurreratu nuen ZETAken urtarrileko Mitoaroa urteko ekitaldi kultural garrantzitsuenetarikoa izango zela, eta jiji jaja baina uste dut asmatu dudala ere. Agian, ez dakit, irakaskuntza utzi eta etorkizuna irakurtzeko bola bat erosi beharko dut.

Nola izan da sorkuntza prozesua?

Aurreko bakarrizketa 2023an egin nuen, Etxarri Aranatzan. Zatiak idazten joan naiz, blokeak idazten, eta bloke horiek probalekuetan eta mikro irekietan probatzen joan naiz. Gasteizko taberna batean eta Iruñeko Laban, esaterako. Prozesu luze bat da. Idatzi frogatu berridatzi, berriz frogatu eta berridatzi. Egia da azken asteetako gauzak sartu ditudala, eta seguruenik azken egun hauetan ere EAEn irakaskuntza greban gaudela, eta azken ukituak emango dizkiot.

Albisteekin berritzen joan zara.

Ez nuen nahita egin, baina egin dudana egituraketak aukera eman dit aktualitateko gauzak ere sartzeko; eskemak aukera eman dit. Kasualitate hutsa izan da.

"Etorkizuna irakurtzeko bola bat erosi beharko dut"

JOXE ALDASORO BAKARRIZKETALARIA

'Batrakomiomakia' bakarrizketa berria egingen du apirilaren 11n, ostirala, Etxarri Aranazko kultur etxean, Irrizikloa programaren barruan



Joxe Aldasoro bakarrizketalaria. UTZITAKOIA

Bertso saioa kultur etxean

Apirilaren 6an, igandea, 17:00etan, Bertso saioa izanen da, Etxarriko kultur etxean. Amets Arzallus, Eneritz Artetxe, Ekain Alegre, Unai Iturriaga eta Nerea Ibarzabal bertsolariek parte hartuko dute. Gai jartzailea Saats Karasatorre izanen da.

tea. Barrearaziko duen esaldi hori bota.

Norberatik sortzen dira edo ikasten da?

Badira teknika batzuk. 2021ean ikastarotxo bat egin nuen eta teknika batzuk badira eta horiek pixka bat landu behar dira. Badago jendea txisteak egiteko eta erremateak egiteko berez dutena. Hitz egiteko modu komiko edo barregarri hori badute, beste batzuk ez hainbeste.

Euskarazko umorearen loraldia dago?

Ni hasi nintzenean 2021ean ez zegoen. Bazeuden bakarrizketalari batzuk gerora ezagutu nituenak: Txiki, Donostiarra, Plazaola bera... Umore klase hau egiten urteak daramatzate. Baina zirkuiturik ez zegoen. Azken urte hauetan sortzen ari da. Donostia aldean Kar kar kolektiboa, bakarrizketalari batzuk, zirkuitua sortu dute eta saioak antolatzen dituzte inguruetan ere. Gipuzkoan zirkuitu hori badago. Iruñean Laban apustua egin dute eta Araban ere zerbait mugitzen ari da. Bai, ari da horrelako loraldi bat izaten.

Beharrezkoa zen?

Euskarak guztia behar du, baita umore mota hau ere. *Stand up* deitzen den eta estatubatuetatik datorren umore hau modan dago Europa osoan, eta esparru horretara euskaldunak ere iritsi behar gara. Bestela, hizkuntzekin gertatzen dena, beste batek okupatuko du leku hori. Zer puntutaraino izango den moda eta zenbateraino errotuko den ez dakigu, baina euskarak eta euskaldunok behar dugu. Baikor egoteko arrazoiak daude, garapen bat badago eta nik uste fruitu batzuk emango dituela.

Zertaz hitz egiten du?

Berez hitz egiten dut bakarrizketalariok hitz egiten dugunaren inguruan: gure buruaren inguruan. Beti edo nik behintzat harrikada edo labankada batzuk botatzen saiatzen naiz. Niri hunkitzen nauten gauzak, gertaerak, notiziak eta abar hartzen ditut. Hunkitu zentzu zabalean: hunkitu barrea eragiten didatelako, mina ematen didatelako, sufriarazten didatelako... Zerbait sortzen didaten gauzak edo bizipenak. Lanetik hasi eta aktualitate sozial, politiko eta abar horretatik abiatzen naiz. Iritzia baino gehiago da gaiak mahai gainean jartzea.

Eta nola ematen zaie gaietara buelta umorearekin lantzeko?

Batzuetan ez da erraza. Lehendabizi gai horri buruz barre egiteko prest egon behar zara. Beste batzuetan ez zaude prest. Absurdotik jotzen baduzu edo kontraesanak badituzu adierazpenetan edo gertaeretan hatzarekin ematea da. Bilaketa bat. Gero egitura zehatz bat da, txista edo kontakizun batena; informazioa bota edo deskribatu eta errematea emateko.

"BATRAKOMIOMAKIA" GERRAREN EPIKARI EGITEN ZAION KRITIKA BAT DA; ERESERKI HOMERIKO BAT"

Hitzekin jolasean

Joseba Sarrionandia idazlearen 'Hitzen libertatea' hitzaldia izan zen, lortia kultur gunean, Guaixe Fundazioak komunikazio proiektuaren 30. urteurrenaren harira antolatuta. Besteak beste, hizkuntzaren "inkorrektioaz" hitz egin zuen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Harrituta nago hainbeste jende ikusita literaturako istorio batean". Behin baino gehiagotan aipatu zuen Joseba Sarrionandiak "harridura" lortia kultur guneko aretoan hainbeste jende ikustean. Guaixe Fundazioak GUAIXEren 30. urteurrena ospatzeko antolatutako *Hitzen libertatea* hitzaldian izan zen, eta Izaskun Etxeberria idazleak gidatu zuen solasaldia. Bi atal izan zituen: lehenengoan Sarrionandia sormen lexikalari buruz aritu zen,

eta bigarren atala pertsonalagoa izan zen, eta aurkezlearen galderak erantzun zituen idazleak *Territorio libre*a poema oinarri hartuta.

Palindromoak, hitz asmatuak eta kalanburrak azaldu zituen Sarrionandiak. "Seguraski ez duzue ezagutuko aipatuko dudan pertsona: Markos Gimeno. Er mukoa zen, palindromoak, neologismoak eta kalanburrak landu zituen". Idazleak azaldu zuenez, Euskal Herritik joan zenean Gimeno hiru urte zituen eta

bueltatu zenean hiru urte hilda zeramatzan. "Bere burua etxe batetik bota zuen. Bizitzaren parte handi bat pasatu zuen eskizofrenia diagnostikoarekin, eta sormen aldiak zituen eta tristuraldi handiak". Musikaria eta artista zen, "herriko grafitiak eta kartelak egiten zituen". Euskaldunentzat "oso interesgarria" dela gaineratu zuen: "400 urte behar izan ditugu ortografian ados jartzen, Etxeparek liburua argitaratu zuenetik eta ni gaztea nintzenez oraindik lortu gabe

zegoen adostasuna 25 letrari buruz". Azkenengo urtetan euskara eredu bat, batua, "ados jartzen" lortu da, "euskara gramatikali-zatuta bat dago, eta idatzi daiteke eta literatura egin daiteke". Baina idazleak aipatu zuenez, "inpresioa daukat azken hamarkadetan jendea bizi garela angustiarekin ongi hitz egiteko". Inkorrektioaren beldurra dago eta horregatik proposatu zuen Markos Gimenoaren hitzetatik hasita "pixka bat inkorrektioak izatera".

Sormen lexikala

Ezkerretik eskuinera eta eskuinetik ezkerre berdin irakurtzen den esaldia da palindromoa. Adibidez, Kaosaren erasoak edo Arrate ere etarra; "Ermuako ama birjina Arrateko ama birjina da". Garai horretan Garzonek bi periodiko itxi zituen, eta palindromo hori idatzi zuen Gimeno. Sarrionandiak azaldu zuenez, Alfonso Reyesek kritikari mexikarrak uste du palindromoek berez ez dutela zentzurik, baina Gimeno "esfortzu handia" egiten zuen eta zentzu handia zutela erakutsi zuen.

Euskaraz palindromoen historia luzea dela azaldu zuen Sarrionandiak. "Badirudi oso modernoa dela baina duela ehun urte palindromo lehiaketa bat egon zen, oso interesgarria da zirkunstantzia". Primo de Riverak 1923an estatu kolpea egin zuen; Kataluniako kapitaina zen, eta katalanak "oraingo moduan zeuden independentziarekin", eta estatu kolpea eman zuenean diktaduraren lehengo legea estatuko hizkuntza periferikoak debekatzeko izan zela azaldu du idazleak: "Katalana, galegoa eta euskara debekatu ziren". Baina ezin izan zuen *Euskadi* deitutako egunkari bat debekatu Lehenengo Gerra Handian Ramon de la Sota deitutako itsas gizon batek parte hartu zuelako, eta gerra amaitzean Herz prentsaren magnateak inprentarik modernoena oparitu zion eta Bilbon jarri zuten; *Euskadi* egunkariko inprenta zen. Orduan, kolpea eman

"INPRESIOA DAUKAT AZKEN URTETAN ONGI HITZ EGITEKO ANGSTIAREKIN BIZI GARELA"

ondoren ezin zuen egunkaria debekatu ingelesak eta estatu-batuarrak ez haserretzeagatik. Euskara debekatuta zegoenez, Kirikiñok euskal orria argitaratzen zuen, eta asmatu zuen palindromo lehiaketa bat euskara idazteko.

Neologismoei buruz hitz egin zuen ere Sarrionandiak Altsasuko hitzaldian, Gimenoaren lana aipatuz. "Edozein hizkuntza sistema bat bezala hartzen dugu, norma bat duena. Sistema norma baina zabalagoa da". Azkenengo hamarkadetan norma sistemaren antzekoa dela pentsatzeko joera dagoela esan zuen, "denok saiatzen gara normara moldatzen". Gimenoaren lanak, aldiz, erakusten du sistema oso zabala dela, eta norma txiki: "Artifizio bat dela, eta jakin behar dugu normatik ateratzen eta sistema linguistikorekin eta komunikatiboaren baliabideak erabiltzen; hitz asmatuak". Hitzaldian egon zirenek asmatutako hitzen zerrenda jaso zuten, Sarrionandiak azalduakoa ikus ahal izateko.

Asmatutako lexiko horren hirugarren adibidea kalanburrak dira: "Sekuentzia linguistiko bat uler daitekeena forma diferentetean". Gimeno, esaterako, kalanbur elebidunak lantzen zituen, hau da, esaera bat euskaraz eta gaztelaniaz esanahi desberdinak zituztenak. Horiak oinarri hartuta bakarrizketa saio bat egin zuen. Horrekin lotuta elebitasunari buruz hitz egin zuen Sarrionandiak: "Gauza bitxi bat gertatzen da; bilinguismoaren berezitasuna". Gizarte elebidun batean "normala" da bi hizkuntza izatea eta aberasgarria da, baina idazlearen iritziz euskaldunek "patologia bat dugu"; monolinguismoa desagertu da, hau da, euskaldun guztiak elebidunak dira, bi hizkuntza dituzte, eta euskaraz "kondizio eta identitario prekario bat badugu". Euskaraz zalan-tza eta inzerbidunbre pila bat daude, "ez dakigu noiz hitz egiten dugun ondo, etengabe pentsatzen gaude oker hitz egiten dugula eta besteak oker hitz egiten dutela". Hizkuntza "dominante" bat dagoela da arazoa, "eta ematen du unibertsala eta problemarik gabekoa dela. Eskizofreniari gertatzen zaiona gertatzen zaigu hizkuntzarekin".

Hitzaldiaren lehenengo atalarekin amaitzeko Sarrionandiak



BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Urdiaingo liburutegiaren gomendioak

Martxoaren 17an Komikiaren eguna izan zen. Adierazpen artistikoa ere baden hori kontakizunak marrazkien bitartez kontatzeko erabiltzen da. Esate baterako, erromatarren garaian protestarako erabiltzen hasi ziren, binetetan politikariak egoera barregarrietan agertzen zirela, horiek irri garri uzteko asmoz. Garai hartan, jende gehienak ez zekien irakurtzen, eta, era horretan, mezua edozeinek uler zezakeen.

Lehenengo proposamena irakurle hasi berriei zuzendutakoa da:

Biga

Romain Pujol gidoilariak eta Vincent Caut ilustratzaile gazteak sortu duten komiki saila. Gidoiak bi orrialdeko abenturatan egituratuta daude, letra larriz idatzita, eta modu xaloan lantzen ditu gai

garrantzitsuak: desberdintasuna, bullyinga edo adiskidetasuna. Umorea, jakina, funtsezkoa da eta nonahi ageri da Vincent Cautek samurtasun grafiko handiz marrazten dituen kontakizun hauetan. Horrez gain, albumaren amaieran irakurleak orri bikoitz bat aurkituko du Bigarekin eta bere adiskideekin jolasteko.

Bigarren hau nerabeendako da aproposa:

Heartstopper

Bi mutilek elkar ezagutzen dute, lagun egin, eta maitemindu egiten dira.

Nick eta Charlie institutu berera doaz, mutilen ikastetxe batera. Egun batean, elkarren ondoan eseri beharko dute klasean, eta berehala ohartuko dira ondo moldatzen direla. Charlie, ordea, Nick-ekin maiteminduko da, eta Nick

heterosexuala da. Tao da Charlie-ren lagun onena, eta hark abisatzen dio, Charlie-ri, baina Nick-i ere Charlie-renganako sentimenduak sortzen hasi zaizkio. Nick nahasita sentituko da ustekabeko sentimendu horiekin, ordura arte neskek bakarrik gustatzen baitzitzaizkion. *Heartstopper* fenomenoak badu euskarazko edizioa: Naroa Zubillagak euskaratu du sail hau. Sareko plataformatan argitaratu zen lehenik, eta 13 milioi pertsonak baino gehiagok irakurri ondoren, Kickstarter web orriari plazaratu zen, helburutzat zuten diru kopurua baino bost aldiz gehiago bilduz bi ordutan. Halaxe, paperean argitaratu, eta mundu osora zabaldu zen. Azkenik, telesailerako ere egokitu dute. Alice Mai Oseman egile britainiar gazteak berak egin du egokitapena.



Izaskun Etxeberria, hitzaldiaren aurkezlea, eta Joseba Sarrionandia, lortia kultur guneko oholztan.

euskaldun elebidunek duten "beste patologia" bat aipatu zuen: "Español monolingüistik eta Iparralden frantsesek, nahiz eta gizarte bilingüe batean bizi, hizkuntza bakarra dakite eta pentsatzen dute bere hizkuntza unibertsala dela". Hizkuntza hori unibertsala dela pentsatzen dutenez, "bi edo hiru hizkuntza dakiena baino inteligenteagoa dela pentsatzen du".

'Territorio libre'

Izaskun Etxeberriak hitza hartu zuen hitzaldiaren bigarren atalean eta Sarrionandiari elkarrizketa literario eta pertsonalagoa egin zion. *Territorio libre* poesia oinarri hartuta, territorio libre hori zein den izan zen lehenengo galdera: "Hizkuntza altxor bat da eta *Euskara da gure territorio libre bakarra* esaera hori entzun izan dut nik poema aipatzean ematen diodan zentzuaren kontrakoarekin". Hizkuntza territorio libre bat dela esan zuen Sarrionandiak, "euskara eta edozein ere". Euskara territorio "ederra" dela gaineratu zuen, "baina esaera esaten da euskaraz eginda arazoa konponduta egongo balitz

bezala, eta poemak kontrakoa esaten duela uste dut".

Poema hori 1981an idatzi zuen, Puerto de Santamariako kartzelan. Egoera oso txarrean zeuden funtzionarioen aldetik, "ez ziguten pakean uzten", eta haien espazio "partikularra" euskaraz egitea zen. Baina momentu batean grabatzen hasi ziren eta haiekin Iñaki Aramaio zegoen. Berak hitz egiteko modu berezia garatu zuen, hitzak lekuz aldatzen zituen: "Orduan funtzionarioa han zegoela euskaraz egitea nahikoa ez zenez, ea konfunditzen genuen esan zuen, baina hitz guztiak trukata.". Hori da poemaren azalpena. "Hizkuntza inportantea da, baina botere harremanek eta bizi garen gizartea eta gairen daukagun estatuak oso fuerteak dira. Euskaldunak hizkuntzan eta beste gauza askotan pentsatu behar dugu".

"NIRE USTEZ LITERATURA KOMUNIKAZIOA DA; BADAGO IDAZLE BAT ETA IRAKURLE BAT"

"Nire ustez literatura komunikazioa da", erantzun zion Sarrionandiak irakurle ote den galde-tuta. "Badago idazle bat, irakurle bat eta komunikazioa. Jendearen arteko komunikazioa literaturaren funtsa da". Idazleak irakurleak dira; dikotomiarik ez dagoela azaldu zuen: "Konbertsazio batean zer zara hitzuna edo entzulea? Hitz egiteko entzun behar dugu besteak esaten duena. Idazleak eta irakurleak gara". Idazten hasi zenean irakurle eta idazle gutxi zeudela esan zuen, "gaur egun euskarazko idazle asko daude". Irakurleak falta dira. "Ez euskaraz bakarrik. Teknologiarenekin bilakaera bat dago eta jende guztiak pantaila migratu du". Irakurlea "galzori-ko espezie" bat dela esan zuen Sarrionandiak, "lehen nobela batean protagonista Sandokan edo Madame Bovary zen. Orain benetako protagonistak irakurleak dira".

Fantasia

Literatura egiten hasi zenean fantasia pixka bat behar zutela azaldu du Sarrionandiak. "Euskara debekatuta egon zen urte pila bat, eta Franko hil eta zu-

lotik ateratzen hasi ginenean, gure munduan fantasia beharrezkoa zen". Fantasia literatura egin nahi zuen, baina denborekin "motiboak aldatzen joan zaizkit". Lehen interesatzen zitzaien fantasia hori "errealitate" bueltatu da. "Behintzat azkenengo liburuetan egin dut esfortzua errealitateari bueltak emateko. Errealitatez saltzen digutena, telebistan esaten diren albiste horiek baino ezer irrealagorik ez dago". Gabriel Garcia Marquez-en errealismo magiko delakoa txiki gelditzen da, telebistan eta prentsan agertzen direnekin alderatuta. "Sartzen dizkiguten gezurrak ikaragarriak dira. Nire ustez benetako arazoa daukagu errealitatez hartzen dugun hori kanalizatzeko orduan. Errealitatez ematen zaiguna gezurra da".

"Zergatik idatzi nuen *Moroak gara behelaino artean* liburua?"

"ERREALITATETZAT HARTZEN DENA BAINA GAUZA IRREALAGORIK EZ DAGO; GEZURRA DA"

Fantasia idazten hasi nintzen euskarazko lengoia literarioa landu behar genuelako; ez genuelako. Idazteko beharrezkoa zena. Gero beste erregistro batzuk garatuko ziren, neutro edo estandar. Lengoaia horren bila idazten nuen". 1990ko hamarkadaren amaieran lengoia estandar hori lortu zela aipatu du idazleak, "literatura egiten zen eta liburu asko eta onak argitaratzen ziren". Euskal literaturaren bilakaera "inpresionantea" izan dela gaineratu zuen. 1970ko hamarkadan, "borroka politikoan, ETAn eta beste batzuk okerrago, soldaduskara, joan ginen eta nahi genuen guztia lortzen ari ginela uste genuen. Franco hil eta gauzak soluzionatuko zirela uste genuen, borroka gogortu zen, eta denborekin konturatu ginen nahi ez genuen guztia ari ginela lortzen". Euskal Herriaren komunikazioa berreskuratu zuenean konturatu zen "ez genuen guztia lortzen ari ginela, eta horri bueltak ematen hasi nintzen". Beraz, Sarrionandiak sentitu zuen euskal literaturan formalki ez zuela ezer aportatzeko, "herri bezala zer interesatzen zaigu? Gogoeta horrekin *Lagun izoztua* idatzi zuen, baina modu arrazionalago batean pentsatu behar nuen". Zazpi urte eman zituen ideiak "apur bat" antolatzen. "Paradoxa bat sortu zen: ezin nituen ideia horiek modu argi batean formulatu. Hemen ez dago eztabaida politikorik. Euskaldunok dugun akats bat da ez garela kapazak gai inportanteak modu normal edo positibo batean eztabaidatzeko". Liburu horretan ideia "mordo bat" sartu zituen.

Hitzaldiarekin amaitzeko Etxeberriak norendako idazten duen galdetu zion, eta Sarrionandiak "pertsona prototipo" bat pentsatzen duela aipatu zuen. "Irakurlea imajinatu behar dut; liburu bakoitza da irakurle desberdin batentzat".

Ekitaldiarekin amaitzeko Sarrionandiaren *Sustraiak han dituenak* poemaren bertsoak irakurri zituzten Samik, Mertxek, Dabak eta Rafak haien ama hizkuntzatan, Jorge Cordonek pianoan Mikel Laboaren abestiaren bertsoa jotzen zuen bitartean. Ondoren, GUAIXEren urteurrena ospatzeko auzatea izan zen. Hitzaldiaren eszenografia Jabí Trapero-k egin zuen. Guztia Manken laguntzarekin gauzatu zen.

"Gauzak nola gainditu eta sentitu erakusten du"

Gixane Santano Cerdan estetizista 'Diario de una esteticista con espíritu de superación' liburuaren aurkezpena egingen du, gaur, apirilak 4 (18:30ean), Altsasuko lortia kultur gunean. Estetizista baten esperientziatik "harago" doa liburua

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Noiz hasi zinen estetizista gisa?
Duela 30 urte hasi nintzen.

2 Zergatik estetizista?
Liburuan azaltzen dudana bezala, neskato oso lotsatia nintzen. BBB ikasten ari nintzen, baina ez zitzaidan gustatzen eta ez nuen unibertsitatera joan nahi. Piper asko egiten nituen; nerabezaroa... Aitak Beasainen lehengusina bat zuen, eta aurpegi tratamenduak egiten zituen. Ahizpa eta biok akne asko geneukan eta garbiketa egin zigun. Ez dakit nola utzi zigun aurpegia, baina ohetxoan eta tratamendua jasotzen egotearen sentsazio hori asko gustatu zitzaidan. Aitak galdetu zidan ea zer egin nahi nuen eta estetizista esan nion; ezin zuen sinistu ez nuelako nire burua asko zaintzen. Irakaslea oso jatorra zen, hippiea; estetika konbentzionala ez ezik, eman behar zuena, alternatiba ere erakusten zigun. Kanpotik ez ezik, barrutik zaintzeko.

3 Gainditzeko izpiritu hori hortik dator?

Hasi nintzenezan estetika estetikak zen; jendearen uestez emakumeak *guapak* jartzera joaten ziren toki bat zen. Nik ere alde emozionalarekin lan egiten dut. Insitututik ere energien munduarekin hasi nintzen. Ikasketak amaitzean reflexoterapia eta abar ikasten hasi nintzen.

4 Nola garatu da zure ibilbidea?

Lana eta zaintza uztartu behar nituen. Jendearekin egotea izugarri gustatzen zitzaidan, eta asteburuetan esentzia olioak, bach loreak eta horrelako ikastaroak egitera joaten nintzen. Mundu honetan sartzeko momentuan ez zen erraza jendearendako oso arrotza egiten delako, sekta batean sartzen ari nintzela edo zirudien. Hortaz,



Gixane Santano Cerdan liburuarekin.

lanera etortzen nintzen, eta eskatzen zidatena egiten nuen, baina ikastaroetatik oso mugitua etortzen nintzen eta pentsatzen nuen niri balio badit besteendako ere ona izanen zela. Jendea tratamenduak egitera etortzen zenean kontatzen zidan nola zegoen, eta esaten nien probatzeko bach loreekin edo bestearekin.

5 Nola sortu zen liburua idatzeko ideia?

Bi urte hauek oso mugitua izan dira. Madrilerako askotan joaten naiz, eta han FANAeko Concha ezagutu nuen, eta jende gehiago ezagutzera itzultzen nintzen, tartean Reme eta bere semea, Fabian, editorea. Bertak esan zidan: "Zergatik ez zara liburu bat idatzera animatzen?". Madriletik bueltan baietz erantzun nuen. Estetizistek askotan idazten didate galdetzeko ea nola egiten dudana, eta liburuan gauza horiek jarriko nituela pentsatu nuen. Ez bakarrik etikaren mundua, baizik eta bizitzan lantzeko gauzak ere.

6 Zein izan zen inflexio puntua?

Konfinamenduaren aurretik hasi nintzen nire modura lan egiten. Oraindik ez nengoen naturopatiarekin, baina bai Emocosmetikarekin eta nutrikosmetikarekin. Inkoherentea zen; jendeari lasaitzeko esaten nion eta ni oso urduri ateratzen nintzen. Konfinamenduan sartu ginenean komertzialak hasi ziren ikastaroak ematen, eta lehenengo hilabetea ikasten pasa nuen. Gero hasi nintzen nire bezeroei gauzak proposatzen.

7 Nolako izan da liburua idatzeko prozesua?

Flipantea izan zen. Abuztuan erabaki nuen idatziko nuela, eta familiari esan nion ez nintzela festetan aterako. Betidanik izan ditut koaderno pila bat eta zerbait bururatzen zaidanean apuntatzen dut. Eskuz idazten hasi nintzen eta editorearekin harremanetan jarri nintzen. Hilabete eta erdi batean idatzi nuen. Gehien kostatu zitzaidana azala eta diseinua izan zen. Nire aur-

pegia jarri nahi zuten, baina nik ez nuen nahi. Castillo Suarez galdetu nion, eta esan zidan tanta bat jarriko zuela, natura...

8 Zer kontatzen du?

Hasiera batean estetizistendako zentro bat nola bideratu gida antzeko bat izan behar zen. Azkenean, gauzak nola gainditu, nola bizi, nola sentitu, mugak jartzeko ikasten eta abar erakusten du.

9 Noiz publikatu zenuen?

Gabonetarako nahi zuten, eta, publikatuko zutela esan zidatenean, bertigoa sartu zitzaidan. Deno gertatzen omen zaigu. Otsailerako prest zegoen eta astrologia eta numerologia ere pixka bat jarraitzen dudanez,

erabaki nuen otsailaren 10ean publikatuko nuela.

10 Zer sentitu zenuen eskuartearen izan zenuenean?

Kostatu zitzaidan eskuan izatea. Hasieran esan nuen publikatuko nuela, eta bi aste inguru pasa ziren eskuetan izan nuen arte. Jendeak irakurri du, eta oso erraz irakurtzen dela esan didate. Sentsazioa polita da. Lana askoz hobe eramatea lortu dut.

11 Nolako izan da aurkezpena?

Azken egun hauetan prestatzen ari naiz. Liburutegitik esan didate zerbait prestatzeko. Bikotea eta biok berdina gara, bihar zerbait daukagu eta gaur egiten dugu. Lasaia izatea espero dut.



gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

Behar duzun guztia

BAZKIDEEK
**DES
KON
TU
BEREZIAK**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1, Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus